



ARGIA



EAE-KO ERREFORMA FISKALA NORK JARTZEN DU DIRU PUBLIKOA?

Enpresek ekarpena erdira jaitsi dute 10 urtean, Sozietate Zergaren bidez

Langileen ekarpenak gero eta pisu handiagoa du diru kutxa publikoan

Enpresek BPGaren %2,5 jartzen dute batez beste Europar Batasunean, EAEn %1,5



Datorren astean



PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6-9 Aktualitatea
- 7 Fauna publikoa
- 10 Net Hurbil: Kazetaria behar da Borneoko kiskaltzea azaltzeko

IRITZIAK

- 17 Mikel Zurbano
- 18 Bixente Serrano Izko
- 19 Jakes Bortairu
Miren Artetxe



'Bihotz handiegia' ipuin liburua kaleratu berri du Eider Rodriguezek. "Debaluatutako esparrua da literaturarena", esan digu. (ARGAZKIA: BATISTE EZEIZA)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 ARGIA KOMUNITATEA
- 42 DENBORAREN MAKINA
- 43 DENBORA-PASAK
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENENKO EMANALDIA
- 52 ARGI-KONTRA:
NATZA FARRÉ
- 54 BERANDUEGI

AZALA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 12 | Julieta Gaztañaga: "Boterea ulertu nahi badugu boteretsuak ere aztertu behar ditugu" / Danele Sarrugarte Mochales
- 20 | Sozietate zerga EAEn: Hamar urtean erdira jaitsi da / Urko Apaolaza Avila
- 26 | Xakea: tablero zuri-beltza heziketan bidelagun / Miren Osa Galdona
- 28 | Sei antifaxistaren aurkako epaiketa Katalunian: Zapaldua zapaltzailearekin parekatzeko saiakera / Andoni Mikelarena
- 32 | M. El Hankari, amazigera ekintzailea: "Gure hizkuntzak ez zuela ezertarako balio sartu digute buruan" / Miel A. Elustondo
- 34 | Abdul Saboor, errefuxiatua: "Mugetako poliziek gu torturatu ondoren, selfieak egiten zituzten gurekin" / Irantzu Pastor
- 44 | Eider Rodriguez: "Literaturarekin ukitu eta zauritu ez ditugun lurralde asko dago oraindik" / Lander Arretxea Bereziartua

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Gipuzkoako Foru Aldundia


DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L.

Ametzagaina Taldeko partaidea.

Lehendakaria: Bego Zuza.

Zuzendaria: Estibxu Eizagirre.

Erredakzioa: Andoni Mikelarena, Axier Lopez, Estibxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Miren Osa, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.

Diseinua: Sergio Labrador.

Argazkilaria: Dani Blanco.

Produkzioa eta inprimaketa: Antza S.A.L.

Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.

Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.

Idazkaritza: Aloña Soraluze, Bego Zuza.

Web garapena: Asier Iturralde.

Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

Interneten: www.argia.eu

Lege gordailua: SS 837-2012.

ISSN: 0213-909X.

Batzorde parekidea: 72562 E.

HELBIDEAK:
Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel.: 943 371545.

Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel.: 559 473163.

Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel.: 94 6765580.

Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel.: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:
Komertziala: komertzial@argia.eu

Harpidetzak: harpide@argia.eu

Erredakzioa: kazeta@argia.eu

ARGIA KIDETZA:

Harpidetzari lotuta egon beharrean, kidetza ARGIAren proiektua indartzera dago lotuta. Kideek, egokitzen duten ekarpen ekonomikoa eginez, ARGIAk argitaratzen dituen kazetaritza lanak (aldizkaria, Larrun, Aktualitatearen Gakoak) jasotzeko aukera izango dute. Batez beste, ARGIA Jendeak 12,50 € jartzen ditu hilean. Harpidetza tarifak: ARGIA astero (150 € urtean), ARGIA hamabostean behin (80 € urtean) eta ARGIA hilean behin (42 € urtean).



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILAREN SAREKO KIDE



A photograph of a man in a blue and black jacket clapping, standing in a field. A woman's hand is raised in the foreground on the left side of the frame. The background is a dark, overcast sky.

PANORAMA

Beltza nagusi

Begirazun zorrotzez ebaki zuen hitz bakoitza Maialen Lujanbiok, eta larrurik beltzeneri jarri zien ahotsa euskal plaza entzutetsuenean: amabakarra, prostituta, yonkia izatea hautatu zuen eta subjektu hauen bizitzetara eraman gintuen, erru, erruki zein epai moraletatik urrun. Autoritate nagusia irabazi zuen argudioekin sega pasatuta, hitzekin txiribuelta bikoitzak eginda eta modurik adierazkorrenean kantatuta.

Argazkia: Dani Blanco · Testua: Estitxu Eizagirre Kerejeta

Iñaki Anasagastik artikulua idatzi du hezkuntza publikoaren grebaz: "Lotsagarria" izan dela eta "familiei eguna izorratu" diela. Erantzun andana jaso du:

ww "Nire gelara gonbitea luzatzen dizut errealitatea ezagutu eta gero, agian, gehiago jakiteko aukera duzu. Egundat bano ez..."

Alaitz

ww "Ama naiz eta gezurra da gelako 19 ikasle direnik, nire semearen gelan askoz gehiago dira. Eta lehengo astean 5 egunez egon ziren irakaslerik gabe. Ez da lehen aldia"

Naiara

ww "5.000 plaza oposaketetan baina zenbat irakasle daude jubilatzeko? Azkenean berdin jarraitzeko"

Irakasle bat

ww "Oso tristea jarri duzun adibidea: 40 ikasle baino gehiago zinetela gelan eta inor ez dela ergela atera. Hezkuntza kalitatea da hori zuretzat?"

Iratxe Allende



Izarkom, Euskal Herriko lehen telekomunikazio operadore kooperatiboa

Axier Lopez
@axierL

Abenduaren 14an Iruñeko Katakra aurkeztu dute Izarkom. Ekonomia sozial eraldatzailean oinarrituta, Euskal Herri osoan telefono zerbitzuak eta Interneterako sarbidea eskainiko dituen lehen telekomunikazio operadorea izango da.

Internet oinarritzko eskubidea dela argi dute, eta beraz, produktu komertzial gisa eskaini beharrean, "Euskal Herriko edozein biztanlek Interneterako sarbide duina izateko bermea" da Izarkomek lortu nahi duena. Operadore transnazional bakoitzak sare propioa izatea zentzurik ez dutela

diote eta telekomunikazio sare libreak, neutralak eta partekatuak sustatu nahi dituzte. Horregatik, herritarrei eskatzen diete proiektua babestea, parte izatea, kooperatibakide izatea eta ez bezero huts bilakatzea. Tokian tokiko eragileekin hartu-eman handia izan nahi dute.

Urtarrietik mugikorrerako zerbitzua
Urtarrilean telefonia mugikorrerako zerbitzua ematen hasiko da eta handik gutxira Internet finkoa. Mugikorren zerbitzua eskaintzeko Orange sarea erabiliko du kooperatibak Hego Euskal Herrian eta Lapurdi, Zuberoa eta Baxenafarroan lan egiteko hornitzailearen bila ari dira momentuz.

"Zerrenda bikoitzaren sistema UPNk euskaldunak zigortzeko trikimailua izan zen"

PAUL BILBAO, KONTSEILUKO IDAZKARI NAGUSIA

Iruñeko haur-eskolen karira Nafarroako Auzitegiak hartutako erabakia salatu eta irakaskuntzaren funtzio publikoan zerrenda bakarria aldarrikatu dute milaka lagunek Iruñean. "Zerrenda bikoitzaren sistema UPNk euskaldunak zigortzeko trikimailua izan zen. Horrexegatik deitoratzen dugu bidegabekeria berrezartzeko urratsa, Parlamentuan bozkatuko dutena. Bozka horiek ez zaizkio bakarrik hizkuntzari lotzen, bozka horiek justiziarri, bizikidetzari eta bereizkeria ezari lotuko zaizkie". 2017-12-16



FAUNA PUBLIKOA

“EITB Maratoian laguntzen ari naiz iktusaren alde (...) tarte zoragarria izaten ari da, adin guztietako pertsonen elkartasun deiak hartzen”

Jon Darpon, Jaurlaritzako Osasun sailburua (Twitter)

Telemaratoi gutxiago, aurrekontu gehiago



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Gutxien espero duzunean –inoiz ez baituzu aurreikusiko iktus bat– antzaldatzen du kolpe zorrotz batez maite duzun norbait, esaldi tonto baten ondoren: “Besoa txingurrututa nabaritzen dut”, zer pentsatu behar zenuen halakorik, paralizatuta geratu zaio gorputz erdia bazkaltzen ari zineten bitartean, hortxe, mahaian, beti esertzen den lekuan; edo berba egiten hasi da ulertzen ez diren hitzekin, eta gero anbulantzia, ospitaleko pasilloak, noraeza, “azkar garatzen den garunaren galera funtzionala”, “bururako odolaren garraioaren asaldura”, iskemia, tronbo, enbolia irakurriko dituzu telefonoko pantailan, itxarongelan zerbait ulertu nahian ari zaren bitartean, zehazki zer izan den jakiteak ezer konponduko balu bezala.

Gero, agian, pasako da. “Harrigarria da nola errekupeatu den”, dio medikuak, baina onenera etorriko da errehabilitazio luze eta gogor bat. Eta gaitzerdi zeren, txarrenera, badakigu zer. Eta beldurrak: behin gertatu bada, zerk ziurtatzen dizu ez dela berriz gertatuko. Tarteka errebisioak, dena ondo doala esaten diote, kezka gainetik kendu ezinda jarraitzen duzu.

Herritarrek beren poltsikoetatik euroz euro jarrita, zentimoz zentimo, munduko borondaterik onenarekin, 402.000 euro bildu ziren abenduaren 15ean iktusaren ikerketarako EITB Maratoian. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 5.000 pertsonari erasotzen die urtean, bada osasungintza publikoak serio hartu beharreko kontu bat. Eta horregatik iruditzen zait fribolitate jasanezina Osasun sailburua *crowdfunding* batean jendeari diru-eske aritzea: iktusaren ikerketarako askoz fondo gehiago bideratzeko aukera bere erabaki soil baten menpe legoke. Telemaratoi gutxiago, aurrekontu gehiago. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



21-D

**LLIBERTAT
DIGNITAT
DEMOCRÀCIA!**

**THE END
IS
NEAR!!!**



ANALISIA



Gerretako ikusezinak



Urko Apaolaza Avila

@urkoapaolaza

ARGAZKIA: MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Ahotsak: *Hernaniko emakumeen testigantzak* dokumentala lehen aldiz ikusteko aukera izan genuen joan den astean. Jadanik ezaguna zaigun Ahotsak.eus proiektuak sarean eskura utzi digun ondaretik abiatuta, Beñat Iturrioz zinegileak historia ikusezin hori bildu eta emakumeek garai zailenetan izandako paper garrantzitsua agerian utzi du. Hernaniko Udalak “andreen iragan biaz” antolatutako ekimenaren baitan egin zen emanaldia, eta horren aurretik emakumeek lan munduan izandako esperientziak ere erreparatu genituen hainbat ikerketaren bidez.

Ondorioa garbia da: teoriak eta botereak “osagarri” jotzen dituen horiek, praktikan giltzarri (izan) dira jendartearen biziraupenerako. “Emakumeak ez zuen firmarik, baina buruarekin egiten zuen lan” zioen pantailako amona batek irribarrea galdu gabe. Gerra osteko unetik gogorrenetan ere, estraperloan edo merkatuan erakutsi zuten adorea ikaragarria da, triskantzari aurre egin zioten “makina bat arrasta eginda”.

Eta triskantzari aurre egiten segitzen dute belaunaldiz belaunaldi, transmisioaren txirikordari esker. Abenduaren 16an Euskal Herriko mugimendu

feministak martxa antimilitarista egin zuen Santurtzin, Bilboko Porturaino. Han zamatzen dituzte itsasontziak hileroko Ekialde Hurbileko gerretan erabilitako armaz. Antolatzaileek nabarmendu zuten feminismoa historian zehar gerraren kontrako agente aktibo izan dela. Beharko, emakumeen gorputzak baitira patriarkatuak inposatutako indarkeria horren “lehen harrapakinak”. Lagun mordoa bildu da Santurtziko kaitxo lotsaren harresian kateatuta, salatzeke Euskal Herrian duela 80 urte bezala gaur Siria edo Yemengo gerretan emakumeak ikusezinak direla eta “biktimaren rola” dutela.

Frontearen atzealdeko sufrimenduari, baina, ertzekoek egunerokoan aurre egin ohi diete jarrera indartsu batekin: umoreaz. *Ahotsak* dokumentalean, dozenaka urte eta mila bizipen soinean dituzten azal gogorreko emakume horiek gosea, debekuak eta oztopoak gogoratzen dituzte, ez biktimaren malkoekin, baizik eta patuari ziria sartu dionaren konbentzimenduz. Eta seguru Alepoko kale horretan zutik geratu diren lau etxeen artean belarria jarriz gero, algara bat entzungo duzula, gaurkoengandik eta gerokoentzat.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gauzaki izateari utzi, pertsonak izateko



Juan Mari Arregi

Joan den astean albiste politiko garrantzitsua jazo zen Espainiako Estatuan. *El País* egunkariak honela zioen: “Animaliak gauzaki izateari utziko diote”. Hala da. Espainiako Kongresuak aho batez onartu zuen PPren lege proposamena animaliak pasa daitezen gauzaki kontsideratuzetik izaki bizidun moduan tratatzera, eta eskubideak edukitzea. Horretarako Kode Zibila aldatu beharko da, baita Hipoteken eta Prozedura Zibilen Legea ere. PPren arabera “paradoxikoa da Kode Penalak 2003tik ezberdintzea gauzei egiten zaizkien kalteak eta animaliei egiten zaizkienak, baina Kode Zibilak ez onartzea animaliak sentsibilitatea duten izaki bizidunak direla”.

Sektore animalistak pozik dira, eta ea “sentsibilitate” horrek eramaten duen Kongresua, esaterako, odola heriotzara arte isurtzen den zezenketak debekatzera. Animaliekiko sentsibilitateak, bestalde, isla izan beharko luke beste izaki bizidun batzueganako arduraren, gure jendartea osatzen dutenenganakoa hain zuzen. Hor daude milioika langabetuak; dozenaka mila langile 707 euroko gutxieneko soldatara iristen ez direnak; 408 euro eskas kobratu eta urtean %0,25eko igoerarekin biziraun behar duten pentsionista eta alargunak; hor daude milaka immigrante, txabola eta aterpeetan pilotuta; eta jendeari libreki ibiltzen uzten ez dioten harresiak; emakume eta gizonen arteko ezberdintasun lotsagarria ere hor dago, soldatetan nahiz gizarteko beste arlo askotan; milaka lagun daude gaixo eta medikazio egoki baterako laguntzarik gabe...

Pertsona horiek, gauzakiak edo izaki “sentikorrak” dira? Horiek ere eskubideak dituzten subjektuak bada, beste gobernu-politika batzuk behar dituzte euren beharrak modu egokian asetzeko. Gauzaki izatetik, pertsona izateko.



KALERATZEAK STOP GIPUZKOA

Etxetik kaleratu dute 84 urteko donostiarra

DONOSTIA. Ohatilan atera dute Patxi Zubiaurre 40 urtez bere etxea izan den lekutik. Abenduaren 13 goizean kaleratu zuen Abacredit mailegu enpresak, 2014ko maiatzean ezin izan baitzion hipotekari aurre egin. %19,5ko interesdun 100.000 euro inguruko hipoteka zuen, eta hura ezin ordaindurik enkantean galdu zuen etxea. "Gaur Patxi etxetik bota dute, eta berarekin batera, gu denon parte bat bota dute etxetik", adierazi du Kaleratzeak Stop! mugimenduak.

BabyPISA: 5 urteko haurrei azterketa egin nahi diete

Mikel Garcia Idiakez
@mikelgji

15 urteko gazteei egiten dieten PISA probak badakigu nola eragiten duen ikastetxeko jardunean eta herrialdeetako hezkuntza politikan. Orain arte, bestelako heziketa garatu ahal izateko askeago aritu dira Haur Hezkuntzan, baina PISA bat prestatzen ari dira 5 urteko haurrentzat.

Proba pilotua

Proba-pilotua egiten ari dira Ingalaterra eta AEBetan. Umeen "alfabetizazioa, aritmetika, funtzio exekutiboa, enpatia eta konfiantza" ebaluatu nahi dutela dio ELGE erakunde ekonomiakoak.

Zer neurtuko du

Adituen arabera, errendimendu akademikoa eta zenbakitan neurgarria dena neurtuko du umeentzako PISAk; aniztasuna kanpoan utziko du ebaluazio estandarizatu eta unibertsal honek.

Ondorioak

"Azkenean, neurgarria den horretara mugatuko da Haur Hezkuntza: alfabetizazioa eta aritmetika, eta proba hauetan emaitza ona ateratzeko, hezkuntza planak horretara bideratuko dituzte", uste dute adituek.

ARRANTZA



%12

jaitsi du legatzaren arrantza kuota Europar Batasunak. Laugarren urtez jarraian jaitsi dute. Euskal arrantzaleentzat albiste txarra da, Gipuzkoako Kofradiaren hitzetan.

%21

igoko dute txitxarroaren kuota eta bere horretan mantenduko dituzte antxoa eta zapoaren arrantza kuotak.



HANDIA

Espainiako Goya sarietako 13 izendapen jaso ditu Handia filmak eta kategoria nagusia guztietan dauzka irabazteko aukerak: film onena izateko lehian dago, zuzendari onenaren saria ere eskuratu dezakete Arregik eta Garañok, baita gidoi onenarena ere.



HEGAZTIEN GRIPEA

ELB sindikatuak deiturik, Mauleko jendarmeriaren aurrean hiru zientzo herritarrek babesa eman diote hegaztien gripea dela-eta bere ahate sanoak hiltzeko aginduari aurre egin zion Barkoxeko Xabalgoiti baserritarri.



TORTURA

1960-2014 artean Euskal Herrian izandako tortura kasuen txostena aurkeztu dute EHUKo Kriminologiarako Euskal Institutuak eta Eusko Jaurlaritzak. Aurreneko aldiz, instituzio publiko batek onartu du Espainiako Estatuak torturatu duela.

Borneo kiskali dute eta kazetari bat behar da egia itsusia azaltzeko



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

André Vltchek kazetaria, ARGIAren irakurleak azaroko LARRUN gehigarrian –*Gerrako ekologia*– ezagutu duena, Borneo uhartean ari da filmatzen munduko txikizorik handienetako baten kronika izango den dokumentala. Duela gutxi arte bioaniztasunaren paradisu izandako irla erraldoian oihanak oro eraitsi eta lurzoruak mineral bila harrotuta, Borneoko ekosistema aberatsa bezala gizarte sarea suntsitu dituzte Mendebaldeko multinazionalak.

Groenlandia eta Ginea Berriaren ondolik, planetako hirugarren uharte handiena da Borneo, 743.000 kilometro karratu (konparatzeko, Espainiak 505.000 dauzka), 16 milioi biztanle. Indonesia da horien bi herenen jabe eta Malaysia gainerako herenarena, mutur txiki bat utziz Brunei sultanerriari. André Vltchek Borneorekin itsututa zergatik dabilen azaltzeko, onena hemen errepikatzea azaroan *Investig'Action* hedabidean plazaratu duen “*Borneo, uhartea suntsituta, jendearen ezjakinean*” kronikaren pasarte bat. Hona.

“Eta uhartea erretzen ari dira. Edonon daude isuri kimiko higuigarriak. Legez kontra bilatzen dute urrea bai lurpean eta bai erreka handi baina itsuski kutsatuen erdian; hondeatze lanak erraz ikusten dira airetik eta lurrazalean, baina ‘botere handiko jendeek’ zaintzen dituzte, baita indar armatuek ere, eta horregatik dira ukiezinak.

Gaur Borneo aipatzeak esan nahi du meatze bila hondeatzea eta zuhaitzak eraistea, baita zuhaitz *plantazio* beldurgarriak ere, dagoeneko lurraldearen gehiena kanibalizatu dutenak. Ezer ez da ekoizten hemen, baina denetik atera eta erauzten da.

Jendeak galtzen ari dira bere lurra. Beren osasuna galtzen dute, baita biziak ere. Planeta galtzen ari da bere birikak –oihan tropikalak– edo zuzenago esateko, dagoeneko galdu ditu artxipelago honetan zeuzkanak. Kapitalismo basatia, ustelkeria moral eta

finantzazkoa, kontrolik gabeko multinazionalak; hau da norabidea erabat galdutako herrialde honen egia itsusia, egia ikaragarria.

Badirudi Borneo azkenetan dagoela. Indonesia osoa da jokoaren amaiera iritsi dena, baina badirudi politikoki itsusia dela horrelakorik esatea Mendebaldean, batik bat hedabide nagusietan. Indonesia, azken finean, bere burua ari da hondatzen Mendebalde aberastu ahal izateko. Horrela zen kolonialismo garaian, eta horrela izan da berriro 1965ean AEBek sustatuta militarrek estatu kolpea eman zutenetik.

Lan egiten dut Afganistanen ere, Ekialde Hurbilean eta Afrikan erabat hondoa jotako hainbat herrialdetan. Hemen, Borneon, haietan bezala dabil tza gauza guztiak. Bakea ote da hemen bizi dutena? Ez zait iruditzen. Niretzako gerra baten antza du, gerra izugarri bortitz batena. Jendeak bere jendearen kontra egiten duen gerra dirudi, jendeak naturari eta izaki guztiei egindako gerra, basoen eta erreken eta baita bizia beraren aurkako gerra.

Amesgaizto neokolonial bat dirudi. Asiako lekuri ederrena izan zena kixkalita dago, orbainez betea eta oinaze latzetan. Baina oraindik arnasa badauka, bizirik dago. Eta bizi denaren alde borroka egitea beti merezi du”.

André Vltchek (1962) kazetari eta dokumentalgilea Leningradon sortuz –gaur San Petersburgo, Errusia–. Iparramerikarra nazionalitatez, ezagu-



na da hedabide handi bezala txikietan argitaratu kronikengatik, halaber liburuengatik. Euskal Herrian Txalapartak gaztelaniaz argitaratu zion Noam Chomskyrekin egindako *Mendebaldeko terrorismoa*. Dokumental saila ere egina du, Ruanda eta Kongoko gerraz eta beste hainbatez.

Joan den negu-udaberrian kronika bikainak bidali zituen Afganistandik. Baina azken urteetan batik bat Asia Ekialdean dabil, Kanbodian bezala Indonesian. Herrialde honen kiebraz idatzia du “*Indonesia, beldurraren artxipelagoa*”. Borneora egindako azken bidaian ikusi zuen suntsiketak, halere, *shock* batek bezala astindu omen zuen Vltchek eta hala erabaki du indar berezi bat egitea hura kronika eta irudietan azaltzeko.

Nor oroitzen da Sukarno

Asia urruneko eskualde hura ondo ezagutzen duen Vltchek ez du espero bertako inor ausartzea hango infernu ahantzia kontatzera. Indonesiako us-tezko paradisuetera doazen turistek horren ideia zipitzik ez duten arren, milaka herritar masakraturen odoletan itotako bakea bizi dute han. 1965an Suharto jeneralak hartu zuenetik boterea, orduan lehendakari eta Hirugarren Munduko lider aurrerazaleen erreferentzia zen Sukarno kenduta, milioi erdi heriotza eta beste milioi eta erdi gehiago espetxerateren prezioa pagatuz eraman zuen Indonesia Mendebaldearen kontrolpera.



André Vltchek Borneoko kroniketako bat irudiztatzeko egindako argazkian, Bu Elvi anderea berak erre duen baso zatia erakusten, ke artean, esku eta oinak beltz kedarez. Elvi ez da oroitzen parajeok oihan eta baratze tropikal ziren garaiez, Suharto jeneralak AEBen aginduetara hemen ezarritako nekazaritza industrialean hazia, kautxua ekoizten zuen prezio ona egiten zueno, orain prezioa jaitsi dela-eta arbolak erre ditu. Inguratzen duen kutsadura eta suntsiketa beti hor egon balira bezala mintzatu zaio kazetariari.

Orain, dio Vltchekek, hango elitea kolonialismoaren garairik okerrenetan adina dago Europaren eta AEBen morroi. Hezkuntzak ez du egiten haur eta gazteen *brainwashing* [burmuin garbiketa] baizik, kultur munduan idazle eta zinegileek mendebal kutsua kopiatu nahi duen zaborra ekoizten dute, ez da entzuten gizartean bezala ingurumenean kapitalak egindako desmasiak salatzen dituen ahotsik. 60ko hamarkadako komunismoa bortxaz lurperaturik, herritar asko babestu da fundamentalismoetan, izan kristau edo musulman. Alde horretatik uste du Vltchekek Mendebaleko potentziek bigarren Ekialde Hurbil bat sorrarazi dutela Ekialde Urrun hartan.

Baina jendea bizi da Borneon ere. Bizi beharra daukaten jendeak aurkitu eta aurkezten dizkigu bere kroniketan Vltchek.

Zer gertatu zaien ulertuta sufritzen dutenak, hondamendiaren xehetasunak erakusten dizkietenak. Baina baita egoera berriera egokitu direnak, oihanetako azken zuhaitzak errez eta kautxuarekin edo mineral bila, bizitzeko adinako negozioa egin nahi dutenak, gauzak bestela izan litezke nik burutik pasatzen ez zaienak.

Bu Elvi anderea, esaterako, familiako kautxu arbol basoa erretzen aurkitu du Sintang eskualdean. Bertan zegoen oihan tropikala aspaldi eraitsita, familiak kautxu arboladi txiki bat lantzen zuen, baina antza denez –Elvik lehengaien burtsa jarraitzen du hedabideetatik– kautxua ez da errentagarri garaiotan, prezioek behera egin eta gobernuak dirulaguntzak kendurik. Fuera kautxu arbolak eta beste zerbaitetara.

Baina nork esango du Elvi oker ari denik? Suhartoz geroztik mundu guz-

tiak nekazariei agindu diena bete du, ekonomia globalizatuak Ekialde Urruneko nekazariei eskatutakoa konplitu. Lana latz eginda diru bat irabazi du eta harrotasunez aldarrikatu dezake bere buruaren jabe bizi dela, inori erreguka joan behar barik. Agintariak nahi zituzten *indonesiar berrietako bat* da Bu Elvi, nork aurpegiatu behar dio ezer?

Vltchekek laguntza eskatzen die irakurleei dokumental berria bururaino eramateko. “Hemen ari naiz ito beharrean lanean Borneon: filmatzen, idazten, argazkiak ateratzen. Badira sostengatzen nautenak, laguntzen ahalgintzen direnak. Lortuko ote dugu zerbait? Hala nahi nuke. Lortu behar dugu, zeren eta bestela laster hemen eta alde orotan dena pribatizatu, komertzializatu eta menturaz suntsituko dute”. ■



50 urtez elkarrekin



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



Julieta Gaztañaga antropologoa

«Boterea ulertu nahi badugu boteretsuak ere aztertu behar ditugu»

Buenos Airesko euskaltegian izan zuen Gure Esku Dago mugimenduaren berri Julieta Gaztañagak, eta politika aztertzen duen antropologoa denez, tira egin nahi hariari. Tira eta tira, antropologoari dagokion jakin-minak ekarri du Euskal Herrira, erabakitzeke eskubidearen inguruko borroka eta eztabaida pil-pilean dauden sasoiotan.



Danele Sarriugarte Mochales

@daneleSM

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Zergatik ikasi zenuen antropologia?

Lotsa apur bat ematen dit hau aitortzeak, baina honezkero konpromiso handia erakutsi dut antropologiarekin eta uste dut esan dezakedala: Julio Cortázarren ondorioz ikasi nuen antropologia. Hura da nire idazle kuttuna, haren ipuin batzuk buruz dakizkit, eta bazeukan ipuin bat, *Para una antropología de bolsillo* izenekoa, eta, ez dakit, erdizka absurdua erdizka misteriotsua iruditu zitzaidan kontua. Eskolan ez genuen sekula ezer ikasi antropologiaz, nire familiako inor ez zebilen horretan, enigma bat zen, beraz.

Eta Cortázarren ipuinean nolako zen ba antropologia?

Egia esan, biguntzeaz hitz egiten du ipuin horretan. Oso testu ona da, ñabar-dura politiko asko ditu, nahi gabe izanik ere. 15-16 urte nituela irakurri nuen, eta alderdi ludikoa bakarrik harrapatu nion, baina zera azaltzen zuen: den-dena bigun ikusten duen jendeak gauzak bigun ditzakeela, eta alderantziz. Oso ipuin la-

burra da, Cortázarrek idatzi ohi zituen ohar horietako bat. Edonola ere, antropologiak nola begiratzen dion munduari, horixe erakusten du ipuinak, ez hainbeste zer den antropologia diziplina gisa.

Nola begiratzen dio antropologoak munduari?

Jakin-min handiz eta errespetuz. Oso gustuko dut beste kontzeptu hau: karitate interpretatiboa. Serio hartzea jendeak egiten duena, esaten duena, sentitzen duena: bizipenak errespetatzea alegia. Orain, pentsatzen hasita, uste dut testu hartan horixe agertzen zela hain zuzen, besteren esperientziarekiko jakin-min umila.

Eta antropologoaren begietatik politika aztertzeko jakin-mina, berriz, nondik datorkizu?

Badu zerikusirik nire historia pertsonalarekin. Nire familiak indarkeria politikoa jaso zuen Argentinan, gurasoak bahituta egon ziren azken diktadura militarrean, eta, horren ondorioz, poli-

tikaren gaia oso presente zegoen nire inguru estuenean, baina ez zen horretaz hitz egiten, eta ni neu eta anaia-arrebak horren beldurrez bizi izan gara beti, txikitatik. Oso gauza sotila zen, ez zegoen inongo mehatxu espliziturik, baina halako desira bat eta beldur bat sortzen zigun politikak.

Bestalde, ikasketen hasiera aldera eman nuen antropologia politikoko irakasgaia Mauricio Boivinekin: nire men-

Julieta Gaztañaga

1977, Bahía Blanca, Argentina

Antropologoa. Buenos Airesko Unibertsitatean ikasi zuen eta bertan jardun da ikerlari eta irakasle azken hogeitaz urtean. Peronismoko lan politikoa eta militantzia aztertu ditu, eta, gaur egun, Gure Esku Dago mugimenduari buruzko landa-lana egiten dabil buru-belarri.



tore bihurtu zen, lizentziaturako eta masterreko tesiak zuzendu zizkidan, eta ikasketak hasi eta bigarren urtean sartu nintzen bere ikerketa-taldean. Talde horretako kideek asko landu zituzten biak, ez soilik antropologia politikoa ezpada politikaren antropologia, aztertzen zituzten alderdiak, mugimenduak, militantzia, buruzagitza... Nire interesek, nire mentoreen grinak eta talde edereder bat topatu izanak, horrek denak lotu ninduen.

Oker ez banaiz, peronismoa aztertu duzu.

Tira, proiektu politiko zehatzak landu ditut, adibidez, lizentziaturako tesian azpiegitura-lan baten eraikuntza ikeritu nuen, handi-handia, Argentinako bi hiriren artean eraiki behar zuten zubi bat, Paraná ibaiaren gainean. Entre Ríos probintziako peronistek bultzatu zuten proiektu hori. Beste lan batean, berriz, eskualdeak integratzeko prozesu bat aztertu nuen, hura ere hainbat probintziatako peronistek hauspotua.

Zer eragin dute halako ikerketek?

Sarritan, antropologia lotzen da ahotsik ez dutenei ahotsa emateko lanarekin, eta aurreiritzi horrek kalte egiten dio batzuetan gure alorrari, zeren, kide askok esan duten moduan, boterea ulertze aldera boteretsuak ere aztertu behar ditugu, eta ez soilik joko horrek kalte-tzen dituenak. Nik, oro har, boteretsuekin egin dut landa-lana, militanteekin ere bai, baina helburua izan da ikustea nola egiten den politika handia, estatugileen eskalan. Ikerketok balio izan didate antropologiara ekartzeko ustez antropologiari ez zegozkion gaiak. Eta aurreiritziak kentzeko, zeren sarritan halako betaurreko batzuk dira, traba egiten digute prozesuak sakonago ulertzeko bidean.

Nolako aurreiritziak dira ba horiek?

Adibide simple-simple bat ipiniko dizut: pentsatu ohi dugu politikariek azpiegiturak egiten dituztela soil-soilik argazki bat ateratzeko gero. Bada, badira beste hamaika arrazoi azpiegitura jakin bat eraikitzeko. Arrazoi hobeak edo okerragoak izan daitezke, baina sarritan ez ditugu ikertzen, zergatik eta alde aurretik sinetsi dugulako lan horiek egitearen helburu bakarra dela argazkia ateratzea, eta aurreiritzi hori ez da soilik politikoa eta ideologikoa, aurreiri-



tzi kontzeptuala da. Aldez aurretik uste baldin badut zinismo hutsez egin dela dena delako azpiegitura, kalkulu guztiz instrumentalen ondorioz, orduan ez dut aztertuko zer beste arrazoi dauden tartean, adibidez, zergatik egin den azpiegitura hori eta ez beste bat. Izan ere, azpiegitura eraiki aurretik, baliabide ekonomikoak lortzeko borrokak egon dira, eta, nire aurreiritziak direla medio, ez dut horien berririk izango.

Behaketa parte-hartzailea izeneko metodologia erabiltzen duzu. Zer da hori?

Behaketa parte-hartzaileak esan nahi du ez izatea kanpoan dagoen norbait, jendeari begira laborategi bat balitz bezala. Esan nahi du jendea behatzea, bai, baina parte hartuz. Denbora luzean uste izan zen posible zela behatzaile objektibo izatea, baina sinesmen hori aspaldi ezeztatu zen.

Egunerokoak ere garrantzi handia du, ezta?

Bai, dena delako espazioan presente egon behar duzu, egunez egun, izan militantzia-espazioan edo kanpainen... Premiazkoa da besteen konfiantza lortzeko eta zeu ere haiekin fidatzeko, eta hori lortzeko ezinbestekoa da behaketa parte-hartzailea, hori ezin da elkarrizketa batekin lortu, elkarrizketazailerik gabe izanik ere, badaude hizketaren elementuak, bizipenak, egoerak... eta horiek denak egunerokoak erakusten dizkizu, errutinak, nahiz eta batzuetan aspergarria izan.

Argentinako euskal diasporari buruzko kontuak ere landu dituzu. Zure abizena ikusita gauza logikoa dirudi, baina interesa ez datorkizu etxetik, ezta?

Euskal abizen bakarra daukat, eta Argentinan beti jartzen digute gaizki. Ez



da abizen zaila, baina nahasmena sortu ohi du, eta denetik ipini digute, zuzena izan ezik. Orduan, abizenaren inguruko nahasmena dela-eta, aitak azaldu zigun euskal abizen bat zela, baina kito, ez zigun ezer gehiago esan, ez gintuen inoiz eraman euskal etxe batera, ez baitu halakoetan sinesten. Gaztetxoa nintzela izan nuen euskal munduaren berri, lagunen bitartez, eta, gerora, euskara ikasten hasi nintzen interes linguistiko eta antropologikoa neukalako hizkuntza horretan.

Non aritu zara euskara ikasten?

Euskaltzaleak izeneko euskaltegi batean. Euskal etxe bat da Euskaltzaleak, baina ez da euskal etxe folkloriko bat. Berezia da euskaltegi bat delako, eta euskal munduarekiko maitasuna oso loturik dagoelako hizkuntzarekiko maitasunarekin, zentzu politiko batean. Hori

dela-eta, okurritu zitzaidan akaso alor guztiz berri hori txertatu nezakeela nire ikerketa antropologikoan, zeren, peronismoaz guztiz bestelakoa izan arren, Euskaltzaleak loturik dago balio politikoekin, konpromisoarekin, nolabaiteko militantziarekin... Halaxe hasi nintzen diasporako ezker abertzaletasun deritzona ikertzen.

Nola sortu zen Euskaltzaleak, eta nolako jendea bildu ohi zarete?

Argentinako euskal etxe nagusiaren barruan sortu zen Euskaltzaleak, Laurak Bat etxearen barruan. Munduan dagoen euskal etxerik zaharrena da Laurak Bat, 140 urte beteko ditu laster. Edonola ere, Euskaltzaleak instituzio independente bat izan da hasieratik, eta orain bost urte ezarri zuen bere egoitza fisikoa. Euskaltzaleak oso anitza da, generoaren eta maila sozialaren aldetik, eta hautu poli-

tiko oso diferenteak dituen jendea dago. Hemengo ezker abertzaletasunarekin bat egin arren, argentinarrak gisa oso modu diferentean kokatzen dira bazkideak, eta hori oso interesgarria da, bertako ideologia asko bizi direlako han elkarren ondoan. Euskalduntzeari garrantzi handia ematen dionez, badago euskal arbasorik ez duen jendea, baina hizkuntza interesatzen zaiolako hurbildu dena.

Buenos Airesen hasi zinen Gure Esku Dago (GED) mugimendua aztertzen.

Bai. Euskaltegian ikusi genuen *Gazta zati bat* dokumentala, eta txundituta geratu nintzen, gogora ekarri zidan lan politikoari buruz egin nuen tesia, nahiz eta konparazio guztiz ero eta oso orokorra izan. Lan politikoa egiteko modu artisauro hori, pertsonaz pertsona... oihartzunak ekarri zizkidan. Gero, hasi nintzen gaiak irakurtzen, eta, garaitsu hartan GED mu-

gimenduko kideek parte hartu zuten diaspora osoa elkartzen zen jardueretan, eta iruditu zitzaidan ikertzeko kasu egokia izan zitekeela. Argentinako euskal diasporan espektro politiko osoa biltzen da, eskuinetik ezkerrean, eta harriargia iruditu zitzaidan nola zetozen denak bat, Argentinako gaiei buruz ari direnean den-denaz eztabaidatzen dute-eta.

Zergatik ote?

Hau nik diot, nire izen-abizenek, baina esango nuke denak alde agertu direla oraindik ez dagoelako hautu loteslerik, ikusi nahi nuke ea zer gertatuko litzatekeen, adibidez, kontsulta bat antolatuko balitz. Edonola ere, oso esanguratsua iruditzen zait, eta horregatik azpimarratu nahi nuke, inork ez duela errefusatu, edo, behinik behin, inork ez duela errefusik adierazi publikoki. Babes lauso hori bezain esanguratsua iruditzen zait inork ez errefusatu izana. Hemen, adibidez, errefusatu da.

Eta halako batean erabaki zenuen Argentinako mugimendua ez ezik hemengoa ere aztertu nahi zenuela...

Beharrezkoa egin zitzaidan, konturatu nintzen gauza asko falta zitzaizkidalda: ez nituen ezagutzen beste herri mugimenduak, nola lotzen diren edo ez diren lotzen GEDrekin, alderdien sare politikoa nolako den, ez soilik ezker abertzalea ezpada gobernua, nola bizi den hemen gobernuaren eta estatuen arteko harremana... Diasporan, komunikabideen bitartez baino ez zaigu iristen hori, eta hasiera-hasieratik interesatzen zitzaidan arren hemengo egoera ezagutzea, momentu batetik aurrera ezinbestekoa egin zitzaidan, ezin nuen



**Azken hitza:
Galdera berriak**

Hiru hilabete eskas egin ditu Gaztañagak Euskal Herrian, eta oraindik egonaldiaren erdia geratzen bazaio ere, egin du aurrerapenik: "Galdera berriak eraikitzen hasi naiz, han ez neuzkanak, eta horixe da lehen urratsa. Espero dut erantzun ahal izango ditudala, baina edonola ere, gauza handia da inoiz okurritu gabeko galderak topatzea edo aurrez uste izandako gauzei buelta ematea. Orain jakin-minez nago, ea zer gertatuko ote den Kataluniako hauteskundeekin eta zer eragin izango duen horrek hemen".

ikerketarekin jarraitu tokiko errealitatea ezagutu gabe. Beraz, beka bat eskatu nuen, eman zidaten, eta hementxe nago. Irailaren azken egunean iritsi nintzen, eta martxoaren hasieran itzuliko naiz Argentinara.

Une gori-gorian iritsi zara.

Bai, benetan. Une historikoaren bila ibili izan banintz ez zitzaidakeen tokatuko, eta hara! Kataluniako egoera ispilu bat da, euskal prozesua islatzen duen ispilu bat, bi aldetara. Iritsi eta berehala erabaki behar izan nuen ea Bartzelonara joango ote nintzen, eta azkenean erabaki nuen hemen geratzea eta ikustea nola bizi zen prozesu katalana hemen. Bi mailatan ari naiz prozesua bizitzen: batetik, deialdi eta manifestazio handien planoan, eta, bestetik, egunerokoan, nola hitz egiten den gaiak tabernan, edo auzoko asanbladan, nola sortzen eta kantatzen diren *L'estaca* abestiaren bertsoak... Aztertu nahi dut, baita ere, nor eta noiz isiltzen den, jendea noiz ateratzen den kalera, adibidez erreferente kultural eta politikoak modu bigegabean espetxeratzen dituztenean, eta zelako nahasmena dagoen etorkizuneko hauteskundeetarako zerrendekin. Ikusi nahi dut nolako izaten ari den *procés*-aren prozesua, zer ulertzen den eta zer ez, uste dut oso presente dagoela hori hemen, ez dakigu zer gertatuko den Katalunian, eta euskal prozesuarekin ere oso lotuta dago, ez dakigu nolako izango den, mesede edo kalte egingo lukeen halako erreferendun handi bat antolatzeak hemen, noiz izango ote den une egokia, jada joan ote den, oraintxe ote den... Iruditzen zait GED oso toki ona dela horretaz guztiaz pentsatzeko ikuspuntu etnografiko batetik. ■

Zerga atzerakada

Oxfamen azken txostenaren arabera atzeraldi handiaren osteko desberdintasunen igoeran soldatapekoek izandako errenta galerak ez ezik, enpresa handien zerga jokabideak ere berebiziko garrantzia izan du. Desberdintasunak lausotzeko lanabes inportanteena fiskalitatea izanik enpresen zerga ekarpena gero eta apalagoa da. Elkartein Gaineko Zergak 2016an 2007aren erdia bildu zuen dirutan Espainiako Estatuan, baita Hego Euskal Herrian ere. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan Elkartein Gaineko Zergaren kopurua itundutako diru bilketaren %14,5 zen 2007an, baina 2016an ehuneko hori %8,2ra jaitsi zen.

Mendebaldeko ekonomia politika ofizialetan agenda liberala indartu ahal gertatzen ari da kapitalaren jabeen gaineko zerga arintzea. Horretarako bide erabili ohi dira, mozkinen gaineko tasaren jaitsiera eta kenkarien hedapena. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeko – ELGA-OECD – herrialdeetan zerga horren batez besteko tasa %32,2koa zen mendearren hasieran eta 2016an %24,7koa. Jaitsierak ez du etenik, horrela abenduaren hasieran AEBetako Senatuak azken hiru hamarkadetakoko zerga erreformarik gogorrena onartu zuen. Neurri behinena Elkartein Gaineko Zergaren tasa %35etik %20ra jaitea izan da. Donald Trumpen ortodoxia ekonomikoaren lehen garaipen politikoa. Frantziako Emmanuel Macronen gobernuak hainbat neurri liberal onartzeko bidean da, horien artean Elkartein Gaineko Zergaren %33,3ko tasa %25era jaitea.

Testuinguru honetan ulertu behar da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Gas-teizko gobernuak PPren laguntzarekin itundutako Elkartein Gaineko Zergaren beherakada indartsua. Akordioak datozen bi urtetan zerga honen tasa %28tik %24ra jaitea aurreikusten



Mikel Zurbano
EHU-KO IRAKASLEA

Confesbask-en argudioak erabili dituzte alderdiok neurria legitimatzeko. Neurri honek inbertsioa handituko omen du eta beraz enplegua. Hau da erabilitako argudio nagusia eta ez da balekoa. Izan ere, aspaldiko ebidentzia empirikoak bertan behera utzi du garai bateko mozkinen, inbertsioaren eta enpleguaren arteko ekuazioa

du (enpresa txiki eta ertainentzat tasa egungo %24tik %20ra beheratuko da). Confesbask-en argudioak erabili dituzte alderdiok neurria legitimatze-

ko. Neurri honek inbertsioa handituko omen du eta beraz enplegua. Hori da erabilitako argudio nagusia eta ez da balekoa. Izan ere, aspaldiko ebidentzia empirikoak bertan behera utzi du garai bateko mozkinen, inbertsioaren eta enpleguaren arteko ekuazioa. Esaterako, azken krisialdiko datuek erakutsi dute enpresen mozkinak handitu diren arren inbertsio produktiboa egoera geldikorrean dagoela, baita gurean ere. Irabaziak handitu ahala finantza merkatuetako inbertsioa handitu dena, izaera espekulatzailea eta oso iheskorra den inbertsioa alegia. Eta horrek ez du enplegua era esanguratsuan sortzen.

Gainera enpresa produktiboetan txertatu den kapital urriaren parte gehiena ez da enplegua sortzera bideratu, baizik eta zorrak ordaintzera eta kasurik hobereanean ere enplegua sortzen ez duten produkzio eta berrikuntza sistemen hobekuntzara. Azkenaldian egon den enpleguaren hedapen xumea enplegu finko eta osoa zatikatu eta prekarioa bihurtzearen ondorioz eman da neurri handi batean.

Bestalde, atzerriko inbertsioa erakartzeko Elkartein Gaineko Zergaren tasa jaitsiera ona dela ere entzun da argudio gisa. Irizpide hau balekoa da Irlanda edo Luxenburgoko bezalako zerga paradisuen kasuetarako, baina horretarako tasa %6,25era jaitsi beharko litzateke. Hori balitz euskal estrategia produktiboaren helburua, industria 4.0 delakoa hutsala litzateke. Ostera, azterketa ugari frogatzen dute zerga arintzea enpresa transnazionalen kokapen estrategietako faktore moduan oso atzean kokatzen dela.

Zerga atzerakada honek gizarte zerbitzu eta prestakuntza publikoen maila eta kalitatea arrisku bizian ipintzen ditu eta, horrenbestez, desberdintasun sozioekonomikoak areagotzeko joera indartzen du. ■

Transmisio uhal aldrebestua

Lekeutan, tiradera batean baztertu-rik edo artxibategi historiko batean kontsultarako egon beharko luke tradizio ezkertiar zaharkitu hark, langile alderdien printzipio teoriko bat zena: haren arabera, alderdi bakoitzak bere sindikatua sortu behar zuen, guztiz alderdiaren kontrolpean, sindikatua izanik “abangoardiatik” langileriagana-ko “transmisio uhal”.

CCOOri galdetuko bagenio, autonomia sindikalaren alde agertuko litzateke sutsu teorikoki. Baina norengandik autonomo, eta Izquierda-Ezkerraren-gandik (I-E) jakina! Alta, eta horra hor sorpresa, elkarrekiko lotura aldrebestua dute CCOOk eta I-E-k: alderdia da sindikatuaren “transmisio uhal”, ez langileriarengana, botere erakundeetara baizik. Zerikusi du horrek, jakina, askoz indartsuagoa izateak sindikatua alderdia baino. Alderdiaren babes politikoa, haren boto habia, sindikatu dago gizarte zabalean bainoago.

Bertzalde, oso uste ezkertiar partekatu da langile klase-sindikatu batek langileria osoa izan behar duela buruan, edozein errebindikazio ekonomiko, sozial, kultural, administratibo edota politikotan abiatzerakoan. Klase-sindikatuaren ezinbertzeko baldintza da hori, definiziozkoa izateraino. Halere, maiz,



Bixente Serrano Izko

IDAZLEA

@Bixentesi

CCOOk Izquierda-Ezkerraren autonomia bahitu eta ‘transmisio uhal’ gisa erabiltzen du botere erakundeetara transmititzeko bere federazio bateko gehiengoaren interesak

langile talde zehatz batzuek, klase-sindikatu etako federazio/sail batzuek, bertze batzuek baino pisu eta indar gehiago dute. Eta maiz federazio horien eskaerak ez dute kontuan hartzen euren errebindikazioek ez ote dituzten oztopatzen, bai eta zanpatu ere batzue-

tan, bertze kolektibo baten eskubideak. Nolabait, oihaneko legea altxatzen da sindikatuen barneko langile taldeen artean: indartsuenak jan, gainerakoak hor konpon. Ba, horixe dute arazo bat CCOOk eta berak bahituriko I-Ek, Nafarroan, irakaskuntza publikoko oposizioetarako zerrenda bikoitzaren aldeko beren jarrera lekuko.

Kezkagarria CCOOren jarrera. Korporatibismo hutsean itota, bere alderdia nafar gobernuaren bermatzaileetako bat delarik, I-Eren autonomia bahitu eta “transmisio uhal” gisa erabiltzen du botere erakundeetara transmititzeko bere federazio bateko gehiengoaren interesak. Korporatibismo hutsa eta, agian, bertze mapa politiko baten bila ez ote den hasi alderdi politikoa..., holakoak eta bertze aipatu dira hedabideetako artikulua eta iritzi batzuetan. Baliteke. Baina kontuan hartzekoa da auziaren bertze ertz hau ere, sindikatu eta alderdi politikoen arteko lotura aldrebestua agerian uzten duena. Ez dira ahaztu teoria zaharkitu hartaz, gainditu dutelakoan daude, baina haren kalkoa egiten dute, eta are aldrebestu ere transmisioaren norabidea: CCOO bihurtu da, bistan da, euskarazko lanpostuei dagokienez alderdiaren gidari “abangoardista”. ■

Gabriel Aresti
euskaltegia*

www.gabrielaresti.com

Gozatu euskaraz
Bakaikuko barnetegian!

Barnetegiak · mintza taldeak
lagun taldeak · asteburuak...

Paristik bueltan



Jakes Bortairu
AB-KO KIDEA

Manifestaldi handien biharamunak gazi-go-
zoak dira beti. Borrokaldia edozein izanik.
Asebetetze eta arrakastaren atseginarekin,
aspaldidanik finkaturiko ekitaldia bukatzerakoan
sentitzen den hutsuneagatik, antolaketa fasean
mobilizatu energia xurgatuagatik edo bizi izan-
dako tentsioagatik. Baina oroz gainetik, desafia
irabazirik, “eta orain zer?” galdera hertsagarria
berpizten delako. Hots, estrategiaren garapena
eta ondoko helburu taktikoa definitzeko ariketa
konplikatu. Abenduaren 9ko manifestaldia ez da
alde horretatik salbuespena. Are gehiago presoen
kasuan mobilizazioaren balizko ondorio eskasak
sor lezakeen frustraziori, pertsona askoren sufri-
mentu eta etsipena gehitzen zaizkiolako.

Arrakastatsua izan da Parisko manifestal-
dia duda izpirik gabe. Arazorik gabe iragan da,
pentsatu bezala eta antolatzaileek finkaturiko
helburuak lortu direla erran daiteke. Zer xuxen?
Luhuso eta apirilaren 8tik piztutako dinami-
ka jarraitzea, desarmearen inguruan lortutako
adostasun zabala atxikitzea eta garatzea, armak
itzultzea baino sektore batzuentzat konplikatu-
goa den gatazka armatuaren beste ondorio baten
inguruan, presoen gaiaren sozializazioa Frantzia-
n barna, Euskal Herritik kanpoko sostenguen ze-
rrenda emendatzea kuantitatiboki eta kualitatibo-
ki eta ondorioz indar erakustaldi ederra, frantses
gobernuari interpelazio zuzena azkartzen duena.

Alta, Paristik itzultzen ziren manifestarien
gogoan eta solas guztietan galde eta kezka ber-
dintsuak ziren: ez bada ezer mugitzen edo keinu
batzuk besterik ez, zer gehiago egin beharko
dugu? Mendi bat lehen aldikoz konkistatu nahi
duten mendizaleak bezala sentitzen gara. Tonto-
raineraino joan nahi kosta ahala kosta, baina bidea
asmatu behar, ez baita egina eta okerrago, ez bai-
takigu biderik ba ote den. Adimenaren pesimis-
moak errazki zerrendatzen ditu frantses boterea-
ren aldetik egoera bere horretan mantentzeko
arrazoiak: Madrildik aldentzeko kuraia eskasa,
terroristatzat jotzen diren pertsonen egoera
tratatzeko arrisku politikoa gaurko egunean,
governamenduaren agenda politikoan lehentasu-
nezko gaia bilakatzeko nekezia, estatu jakobino
beldurtzen duen eta Euskal Herriarekiko uzkur-
tasuna areagotzen ahal duen Katalunia, Korsika
edo Kanakiako (Kaledonia Berria, izen ofizia-
la) aktualitate beroa. Ahantzi gabe bi estatuen
aldetik presoen gaia blokeatuz, herri indarrak
burujabetza prozesutik desbideratzeko interes
estrategikoa. Borondatearen optimismoak ber-
rri, baita azken hilabeteetako esperientziak ere,
oroitarazten digute baldintzak urratsez urrats
eraikitzen direla eta etengabe egoera aldatzen
dutela, aukera berriak sortuz. Hortxe gaude, es-
perantzaren leihotik arnasa hartzen, urtarrilaren
13ko hitzorduari begira. ■

Green Slow Gabonak



Miren Artetxe
BERTSOLARIA
@mirenartetxe

Plastikozko jostailuak oparizetik egurrezkoak
oparitzera igaro ginen, lehenik. Egindako
opariak oparizetik egitekoak oparitzera,
gero.

Orain etxerako banbuzko sushi-kit bat opari-
tzen dugu. Edo Marokoko tajinetan inspiratutako
terrakotazko *slow-cooker*-a. Are hobeto. Urte oso-
rako Kundalini yoga ikastaroa. Izen-ematearekin
batera, Indonesiako Gunung Leuser parke natu-
rala oihan-berritzeko landatuko den zuhaitz-hazi
bat erosten ari zara. Egin yoga; salbatu oranguta-
nak. Kalamuzko estera opari.

Orain enpresa *trendy*-etan, langileentzako
turroia eta urdaiazpikoa eskaini ordez, Japonia-

ko *Nendo dango* sisteman inspiraturiko *Green
Bomb*-ak dira gabonsari. Barruan landare aro-
matikoren baten hazia biltzen duten buztinez-
ko pilotak, loreontzi biodegradagarri eta guzti.
Pagotxa.

Badira, ba, bizkotxoak erraz egiteko hauts-
zorroak, supermerkatuetan? Ura bota, arrautzak
gehitu eta labean sartzekoak? Ba, aspaldi asmatu
omen zuten arrautza ere zorroan zeraman erre-
zeta. Ura gehitu eta labera sartzekoa. Ez omen
zen saltzen, ordea. Ez zuelako “norberak” egina
zela esateko moduko bizkotxorik ematen. Kapita-
lismoak dena jaten omen du.

Gure ahotik jan ere. ■

SOZINETATE ZERGA EAE-N HAMAR URTEAN ERDIRA JAITSI DA

Urtearen amaierak erreforma fiskala ekarri die opari Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko enpresei: Sozietate Zerga lau puntu jaitsiko da, EAJ, PSE eta PPren arteko itunari esker. Lehiakortasunaz eta erakargarritasunaz hitz egiten dutenentzat beharrezkoa omen. Baina egiaz, zenbat ordaintzen dute enpresek? Eta nola eragin dezake *zerga atzerakadak* gastu publikoan, ongizatean eta enpleguan? Datuak eskuan, oinarritzko galdera batzuk erantzuten saiatuko gara.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

“Badago tartea Sozietate Zergarekin diru gehiago biltzeko”. Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuak hitz horiek erabili zituen joan den maiaztean, iradokitze zergak igotzeko aukera zabalik zegoela. Haren ustez euskal enpresariak ez dute beste toki batzuetan baino gehiago ordaintzen. Esaldiak harrabotsa sortu zuen botere ekonomiko, patronal eta foru instituzioetan.

Urte erdi eskas geroago, igaro gara enpresei zergak igo behar zaizkiela imajinetatik azken aldiko beherakada handienetakoa egitera: konpainia handien gaineko tasa nominala %28tik %24ra pasa da eta enpresa ertain eta txikiak %24tik %20ra. Hori guztia, duela gutxi Sozietate Zerga hamarrekoko bat ere mugitzearen kontra zegoen PSEren baimearekin.

Jeltzale eta sozialisten pirueta akrobatiko horretan sartzen da, baita ere,

EAEko Aurrekontu Orokorrek onartzea –PPrekin abstentzioa adostuta– ezusterik ezean hil honen 22an Eusko Legebiltzarrean. Confebask enpresarien elkarteak txalotu egin du akordioa eta azpimarratu du negoziatzeko “eredu propioa” ezarri dela. Hiru alderdi horiek (EAJ, PSE eta PP) bloke ekonomiko handi bat osatu dute *de facto* “egonkortasunaren” izenean, lurralde historikoetarako ere balio duena, Arabako kontuekin ikusi dugun bezala.

Azpiazuri belarrondokoa

Enpresei zergak jaitsita, diru gehiago izango dute bederen langileei soldatak igotzeko... Horrela pentsa zezakeen herritar apalak akaso, eta Azpiazuk ere igoal hori pentsatu du berrikitan eskatu duenean enpresek eta sindikatuek soldata igoerak hitzartu ditzatela –Lan Harremanen Kontseiluko azken txoste-



naren arabera, 2008tik hona %5 gutxitu da langileen eros ahalmena–. Beste behin belarrondoko galanta eman diote patronaletik: “Oso eroso da igoera eskatzea pagatzen duena beste bat denean”, erantzun dio Iñaki Garciñuno Cebek Bizkaiko enpresen elkarte buroak Herri Irratiarekin egindako elkarrizketa batean. Sozietate Zergarekin pasa dena ikusita, zeinek daki hurrengo urtean Olentzerok ez ote dien langileei soldata igoera beharrez jaitsiera ekarriko paperean bilduta...

Elkarrizketa berean, Garciñunok ziurtatu du soldatak igotzeak ez dakarrela halabeharrez kontsumoa handitzea edo ekonomia dinamizatzea: “Langileak bere ekonomia saneatzeko edo kredituak amortizatzeke erabil dezake igoera hori”. Eta nahi gabe, hankaz gora jarri du enpresei zergak jaitea eskatzeko patronalak erabili ohi duen argudio nagu-



sietako bat: soldata igoerak kontsumo igoera *halaberrez* ekartzen ez duen bezala, zerga jaitsierak ere ez baitu esan nahi enpresak gehiago inbertituko duenik enplegua sortzeko. Izaera espekulatiboa duten beste inbertsio batzuk gailentzen dira askotan, Mikel Zurbano EHUko irakasleak ARGIAren zerbaki honetan (“Zerga atzerakada”, 17. orrialdean) esan duen moduan.

Zerga jaitsieraren kaliza

Paul Krugman Ekonomia Nobel saridunak azaldu duenez (*El País*, 2017-11-17), egiaz, negozioaren mundu erreala ezagutzen duten enpresetako kontseilari delegatuek ez diete kasu gehiegi egiten zerga tasei, ez omen dira faktore garrantzitsua inbertitzeko orduan. Donald Trumpen zerga erreformaz ari da Krugman noski –enpresen gaineko presio fiskala %35etik %20ra jaitea

EAEko 2018ko Aurrekontuak onartzeko akordioa sinatzeko unea. Erdian, elkarri eskua ematen, Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburua eta Antón Damborenea PPko ekonomia arloko bozeramailea. Zerga erreformaren gaia erdiz-erdi sartu da aurrekontuen eztabaidan eta itunak atea irekita utzi du aurrera begira fiskalitatean aldaketa gehiago egiteko, PPK eskatu bezala.

ARGAZKIA: ARGAZKI PRESS / JUANAN RUIZ

ekarriko duena-, zehazki, estatubatuar presidentearen ekonomia aholkulari bati gertatu zitzaiona kontatu du: “Goi mailako exekutiboekin bildu zen eta galdetu zien ea zergak jaitsita nork uste zuen kapital gastuak igoko zituela. Gu txi batzuek jaso zuten besoa”. Pasadizo horrek erakusten du noraino den auzia ideologikoa, noraino zerga jaitsieraren kaliza “eskuindar ideologoen irudite-riaren” parte, Krugmanek dioen bezala.

Zer punturaino gurean ere da horrela? Arantxa Tapia Ekonomia sailburuak berak aitortu du Sozietate Zergaren tasa nominala jaistearen helburua dela “soilik hori” begiratzen duten atzerriko inbertsioak erakartzea (*El Diario Vasco*, 2017-12-11). Argazki fiskala txukundu eta “kanpo irudia” saldu beharreko zerbait da Cebeken esanetan. Marketing pixka bat, beste tokietako neoliberalak lurralde aske bat ikus dezaten gure herrian euren enpresentzat. Ideologia.

Eztabaida pil-pilean

Zergaren erreforma 2018ko urte hasieran tramitatuko da eta itxura guztien arabera martxora arte ez da onartuko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako batzar nagusietan, urtarrilaren 1eko atzeraragintasunez. Denbora horretan egongo da zeresanik eta bestelako ekimenik hala ere. Joan den ostegunean Eusko

Legebiltzarreko plenoan Elkarrekin-Podemosen mozioa eztabaidatu zen fiskalitatearen inguruan; gehien duenak, “apenas” ordaintzeaz gain, “beherapentxo fiskalak” egiten zaizkiola salatu zuen talde horretako kide Julen Bollainek. Mozioa ez zen aurrera atera, baina saio monografiko bat egitea eskatuko dutela iragarri dute Elkarrekin-Podemos eta EH Bilduk.

Sozietate Zergaren aldaketa sustatu duten EAJk eta PSEk azaldu dute tasa nominala jaitsi bai, baina tasa efektiboa –azkenean egiaz ordaintzen dena– igo egingo dela kenkari eta hobarietan aldatketak egin dituztelako “kontraprestazio” moduan, Idoia Mendiaren esanetan. Horrek diru-bilketa handituko duela diote, eta enplegua sortu, eta justizia fiskala egin –enpresa handiak baitira kenkariak gehien baliatzen dituztenak zerga gutxiago ordaintzeko–, eta egonkortasuna ekarri... Hala al da? Beste hainbat galdera egin dizkiogu gure buruari, oinarrizko galdera horri erantzuteko.

1 Zenbat ordaintzen dute enpresek?

Euskal Finantzen Kontseiluak, paparra ateratzeko moduko datua eman zuen urrian azkeneko aldiz bildu zenean: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ogasunek krisiaren aurreko “giharra” berreskuratu eta 2007ko diru-bilketa historikoa gainditzea lortu dute 2017ko ekitaldiko datuei erreparatuz –%10etik gorako igoerak izango dituzte aurre ekitaldiarekin konparatuta–. Baina diru-kutxa publikoari egiten zaion ekarpenean oso joera ezberdinak ikusten dira soldatapekoen PFEZ zergari edo eta Sozietate Zergari begiratuz gero.

Sozietate Zergarekin enpresek eka-rritakoa erdira jaitsi da hamar urtean: 2007an 2.034 milioi euro bildu ziren eta 2016an berriz 1.003 milioi baino ez dira izan. EAEn tributatzen duten enpresek, hortaz, pastelaren %7,7 baizik ez dute jartzen, Espainiako Estatuan berriz %12. Azpiazuk, hain zuzen, datu hori jarri zuen mahai gainean “algodoiaren froga” gisara, nabarmentzeko euskal enpresek zerga baxua ordaintzen dutela.

Azken urteetan gainera, kopuruak berdin-berdin egin du behera –2017ko ekitaldiko aurreikuspenek diote joera hori apurtuko dela lehen aldiz–, krisia



IREKIA



ARGAZKI PRESS / MARISOL RAMIREZ

Goian: Urrian egin zen Euskal Finantza Kontseilura bidean Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako ahalduenak hurrenez hurren; Bizkaikoak, Unai Rementeriak, gogor kritikatu ditu Pedro Azpiazu Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuaren asmoak enpresei zergak igotzeko, askoren ustez EAJko “barne borroka” horretan garaile atera da gainera. Behean: Idoia Mendi eta Iñaki Arriola, PSEko Idazkari Nagusia eta Presidentea; sozialistek marra gorritzat zuten Sozietate Zergaren tasa nominala jaitea, baina aurrekontuen negoziaketaren erdian jarrera hori aldatu dute.

gaindituta enpresek mozkinak handitu dituzten arren. Lan errentetatik PFEZ bidez lorturikoa, aldiz, igotzen joan da eta %35 suposatzen du jadanik; gainerakoa zeharkako zergen bidez ordaindutakotik biltzen da, batez ere BEZa.

2 Beste tokietako enpresek baino presio fiskal handiagoa dute?


80ko hamarkadan enpresen gaineko presio fiskalaren batez bestekoa %45 eta %40 artean zegoen mundu mailan Tax Foundation AEBetako *think tank* konterbadorearen arabera. Baina Tatche-rismoak eta *laissez faire* ("utzi egiten") doktrinak ekarri dute enpresak gero eta gutxiago zergapetzea: OECD Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakunde-ko herrialdeen artean %32koa zen tasa 2000. urtean, eta orain berriz apenas iristen da %25era.

Euskal enpresari elkarteak askotan azaldu dira kexu, esanez gutxien ordaintzearen *karreran* atzean geratu direla orain arteko %28arekin -lurraldeotan gehiago diren enpresa txiki eta ertainek %24ko tasa dute, nolana ere-. Baina enpresek ekarritakoa konparatzen badugu herrialde baten ondarea kalkulatzeko erabiltzen den Barne Produktu Gordinarekin (BPG), oso beste-lako datua daukagu: Europar Sozietate Zergaren pisua BPGaren %2,5 baldin bada (Eurostat), EAEn %1,5 da -Nafarroan are eskasagoa, %1,2-, askoz gutxiago beraz.

3 Zeinek ordaintzen du eta zeinek ez?

Azaro amaieran zerga erreformari buruzko bilerak eta akordioak azkartu zirenean, datu esanguratsu bat eman genuen ARGIAren webgunean, ELA eta LAB sindikatuek helarazita: EAEko enpresen %78k ez du Sozietate Zerga ordaintzen. Zehazki, enpresen %55ek galerak aitortzen ditu eta beste ia %23k dio ez duela saldirik edo 6.000 euro baina gutxiago irabazi duela, Ogasunari aitortu behar ez izateko. Horretarako, kontabilitatean doikuntzak egiten dituzte edo emaitza positiboei erreserbara egindako ekarpenak kentzen dizkiete, besteak beste.

SOZIEKATE ZERGAREN PISUA BARNE PRODUKTU GORDINEAN (%)



Iturriak: Manu Robles-Arangiz, Eurostat

Kontuak hutsean uzteko enpresa askok erabiltzen duten mekanismo ohikoena da aurreko urteetako galerak konpentsatzea -15 urte egin dezaket atzera, krisiak bete-betean jo zuen garaira alegia-. Orain arte galera horiek mugarik gabe usatu zitzaizketen, baina zerga erreformarekin %70eko langa izango dute enpresa txiki eta ertainek, eta %50ekoa handiek.

Mekanismo hori erabiltzen duten enpresen gehiago zabala tamaina txiki-kokoa da ordea. Gipuzkoan, esaterako, galerak konpentsatu dituzten enpresen %97k 50 enplegatu baino gutxiago dute. Hala, ez da ziurra hortik bildutako dirua nahikoa izango ote den Sozietate Zergaren tasa nominalaren beherakadari aurre egiteko. Zerga-oinarri positiboa duten apurrek, bestalde, kerkariak aprobetxatzen dituzte are gutxiago ordaintzeko.

Zalantza horien aurrean, Iñigo Urkullu lehendakariak erreforma "osotasunean" ikusi behar dela esan zuen Legebiltzarrean: kerkari batzuk zorrotz dituzte I+G+i arloan, eta horrez gain gutxieneko tasa lau puntu igo dute %15-17raino. Hori guztia kontutan edukita zein izango da azken balantzea? Ignacio Zubiri Ogasun Publikoko katedradunaren kalkuluen arabera, enpresek 150 eta

200 milioi euro artean aurreztuko dute azkenean, hau da, per capita edo pertsonako 100 euro.

4 Nola eragingo die aurrekontuei zerga erreformak?

Eusko Jaurlaritzak 2018ko aurrekontu proiektua aurkeztu zuenean "inoizko handienak" direla nabarmendu zuen: 11.486 milioi euro. Joseba Egibar Eusko Legebiltzarreko EAJko bozeramaileak "pertsonak eta auzolana" ardatz dituela nabarmendu zuen abenduaren 11ko plenoan. EH Bilduren taldetik Maddalen Iriartek erantzuna: "Aurrekontu hauek enpresarioei oparitu zaien kontraerreforma fiskalaren ondorio dira, 155arenak eta Confebaske-nak". ELAK ere kritika zorrotza egin eta "antisozial" deitura jarri die.

Sindikatu abertzalearen arabera, diru-bilketan 2007ko mailara itzultzea lortu da, baina denbora horretan BPGa %10 gehiago dela kontuan izanda, duela 10 urteko egoera berdintzeko 1.375 milioi euro gehiago bildu beharko lirateke. Hala ere, aurtengo likidazioan 478 milioi euroko superabita izango du Jaurlaritzak. ELArentzat "gezurra" da aurrekontuak handitu direnik: zi-

fra osoari kenduz zorra ordaintzeko jarri beharrekoa eta AHT egiteko Espainiako Gobernuari aurreratutako dirua, 2009an baino 200 milioi euro gutxiago dauka erkidegoko administrazioak bere partidetarako. Edo beste modu batean esanda: BPGaren %15 izatetik %12,8 izatera igaro da aurrekontuen pisua.

Murrizketa hori arlo zehatzetan nabaritu da. Manu Robles-Arangiz Institutuak egindako azterketa baten arabera, adibidez, osasungintzarako gastu publikoa BPGren %5,3tik %4,8ra igaro da 2009tik hona, eta hezkuntzakoa ere %0,7 murriztu da. Hain zuzen, hori da Hezkuntza publikoaren sektoreak azkenaldiko greba eta protestetan mahai gainean jarri duen kexetako bat: EAEko aberastasunaren %3,8 inbertitzen da Hezkuntzan, baina Unescok %6ko gutxienekoa aholkatzen du, hain justu Europako batez bestekoa dena.

Aurrekontuen murrizketa erabat lotuta dago diru-bilketarekin, zorraren ordaintzarekin eta defizit mugarekin, sindikatuen ustez. ELAk eta LABek Sozietate Zerga aldatzeko akordioaren aurrean elkarrekin egindako prentsaurrekoan, "gastu-araia" gogorarazi zuten.

Arau horrek 2011ko Espainiako Konstituzioaren 135. artikulua erreforatu du oinarri eta sabai bat ezartzen du gastu publikoarentzat. Hortik gora zorra ordaintzera bideratuko litzateke. 2017ko uztailean Espainiako Kongresuan onartu zen -EAJ eta UPNren aldeko botoekin, besteak beste- erkidegok gehienez ere %2,5eko hazkunde nominala eta 2020rako defizita zero izatea. Sindikatuen ustez foru-ogasunek horregatik egingo diote "uko" diru-sarrera bati enpresei zerga jaitsiz: "Aurrekontu politika eta fiskalitatea prean doaz". ■



ARGAZKI PRESS / LUIS JAUREGIALTZO



ELA

Sindikatu eta eragile sozialek askotan ohartarazi dute zerga politikak eguneroko bizitzan eta zerbitzu sozialetan zuzenean eragiten duela. Goiko irudian, Bilbon fiskalitate justu bat eskatzeko giza-katerako deialdia, 2017ko ekainean. Behean, irakaskuntza publikoko greba azaroaren 30ean; besteak beste salatuta zuten hezkuntzarako inbertsioa murriztu egin dela erkidegoko aberastasunarekin konparatuta.

ARGIA 2018ko egutegia

Hormak edukiz janzteko.

943 371 545 · www.argia.eus/denda · denda@argia.eus

Egutegia

9€

Egurrezko taula egutegia opari

50€

Zu2ak 10
REGGAE DANCEHALL URTE

URTE ZAHAR GAUA
ABENDUA 31

LITTLE
MARTIN
SELEKTAH

MOUNTAIN
SOUND

DANTZALL
SOUND

PANO
SELEKTAH

SELEKTAH
STEPH

10€ SARRERA

HASIERA 01:30 H AURRERA

PAGO

PAGOALDEA POL., 53, ERGOIEN AUZOA, OIARTZUN



berria

ARGIA

an7a



AFRODELICIOUS

Tablero zuri-beltza heziketan bidelagun

Gero eta gehiago dira xakea tresna hezitzaile gisa erabiltzen duten ikastetxeak, eta curriculumean ere txertatu dute hainbat lurraldetan. Ikasleek memoria, sormena eta lankidetzaz jorratzeko aproposa da, besteak beste. Tolosako Herrikide ikastetxera gerturatu gara, xakearen onurak ezagutzeko asmoz.



Miren Osa Galdona

@Mirentx_U

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Katalunia da xakea hezkuntza sisteman barneratzen aitzindari (bost urte darma xakeak ikasgai moduan) eta Nafarroak gauza bera egin berri du: datorren ikasturtetik aurrera, hautazko ikasgaia izango da Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetan. Ikasleei jokia irakastea baino gehiago, helburua da “ohiturak, prozesu kognitiboak eta gaitasunak garatzen laguntzeko tresna bat eskuragarri jartzea”. Eta asmo horrekin ekin diote Herrikiden. 3, 4 eta 5 urteko ikasleekin hasi dira, emaitza “oso positiboekin”, eta pixkanaka maila guztietan ezarri nahi dute.

Dantza, errespetua, adimen anitzak...

Gurutze Telleria eta Aintzane Leunda irakasleak hasi dira xakea lantzen: formazioa jaso zuten, materialak sortu zituzten eta praktikan jartzen joan dira. Formazioa hasi eta segituan izan zuten lehenengo ezustekoa: ez da beharrezkoa jokatzeko jakitea, tresna pedagogiko

moduan erabiltzeko. Xakea abiapuntu hartuta egin daitezkeen ariketak zein anitzak eta ederrak diren ere berehala jabetu ziren. Zer du, bada, xakeak, erreferentziatzeko tresna hezitzailea izateko? Pello Agirrezabal HH eta LHko zuzendariak argi du: “Elkartasuna, errespetua eta adimen anitzak erabat lantzen ditu. Ikaslea kolektiboan baino, pertsona indibidual bezala garatzeko aukera ere ematen du”. Haurrek txikitatik jolas moduan hartzen dute xakea eta tableroan mugimendu bertikalak, horizontalak eta dantzak egiten dituzte: “Ikasleen sormena sustatu behar dugu eta horretarako adimen espaziala funtsezkoa da. Tableroak asko laguntzen du horretan”, dio zuzendariak.

Balioez ere mintzo da; esaterako, errespetua: “Bestearen txandak errespetatu behar dituzu nahi eta nahi ez, eta denbora jakin batez besteari utzi behar diozu jokoaren aginte makila”. Erabakiak hartzeko gaitasuna barneratzeko ere lagungarria da: fitxak nola

mugitu norberaren erabakiaren baitan dago eta ondorioak norberak pairatu behar ditu. “Une batean hainbat aukera izan ditzakezu, baina bakarrik aukeratu behar duzu. Bizitzako edozein arlotarako balio dezake horrek”. Beste balio bat, elkartasuna: “Ariketa batzuk bina-ka egitekoak dira eta momentu batean munduak buelta emango balu bezala, bata besteari rola hartu behar du. Momentu horretatik aurrera bakoitzak bestearen piezekin egin behar du aurre”. Edo partidak taldean ere jokatu daitezke, lankidetzaz eta talde lana indartuz: esaterako, batek aurkariari jaten dion fitxa bakoitza, bere taldean jokatzen duen ikaskidearentzat izango bada, oso konfiantza izan behar du zein den jan behar duen fitxa, zein den bere taldekideari gehien komeni zaiona.

Ikasgai guztietan baliagarri

Pasillo erdian marraztuta duten xake taula erraldoian aritzen dira ikasleak xakeaz gozatzen: sekulako piezak eta



material berezia dituzte, eta adin ezberdinetara egokitutako ariketak landu ditzakete. Gainera, musika, matematika edota historian bidelagun izan daiteke xakea. Esaterako, historiako klaseetan amu gehigarri bilakatu daiteke xakea, jokoan 1.500 urteko historia duelako eta paraleloki konta daitezkeelako xakearen eta historia garaikidearen pasarteak. Agirrezabalek adibidez, matematiketan erabili du: “Ikasleen arreta pizteko egin nuen, gai berri bat eman behar genuen eta lehen unetik haien inplikazioa lortu nahi nuen. Jolasaren bidez bidea ireki eta horretan laguntzen du xakeak; hortik abiatuta, irakaslearen ardura da bidea egitea”.

EAEko hezkuntza curriculumean sarzterik izango al luke xakeak? Borondate politikoa badagoela uste du Agirrezabalek, baina lantaldeen egonkortasun falta dela arazoa: “Ikastetxe batzuetan, hainbat proiektu oso lotuta daude irakasle jakinei, eta gaur egun, irakasleek

» Helburua da ohiturak, prozesu kognitiboak eta gaitasunak garatzen laguntzeko tresna bat eskuragarri jartzea. Herrikiden 3, 4 eta 5 urteko ikasleekin hasi dira, eta pixkanaka maila guztietan ezarri nahi dute

asko aldatzen dute ikastetxez”. Proiektu horiek, tartean Herrikiden martxan jarri duten xake hezitzaileak, arrakasta izan dezaten, gurasoak ere gakoa dira, Telleria eta Agirrezabalen hitzetan: “Ikastetxean ikasitakoak etxean izaten

» Taldean ere jokatu daiteke, lankidetzan indartzeko: ikasleak aurkariari jaten dion fitxa bakoitza, bere taldean jokatzen duen ikaskidearentzat izango bada, oso kontuan izan beharko du zein den jan behar duen fitxa

du jarraipena eta oso garrantzitsua da proiektuen berri ematea familiei. Garrantzitsua gutxienez zure seme-alabak zertan dabilzan jakitea. Eskola programa familiek ondo ezagutzea oinarrizkoa da”. ■



80 URTEKO ZIGOR ESKAERA SEI ANTIFAXISTARENTZAT

Zapaldua zapaltzailearekin parekatzeko saiakera



Andoni Mikelarena
@andonimik

2013ko urriaren 12an, ustez, neonazi batzuei eraso egitea egotzita auzipetu zituzten Kataluniako sei antifaxista. Azaroaren 29an amaitu zen epaiketa eta auzitegiak erabakiko duenaren zain daude. Gorroto delituen Fiskaltzak hamabosna urteko kartzela zigorra eskatu du bost akusaturentzat eta lau urte eta erdikoa seigarrenarentzat. Zapaldua eta zapaltzailea maila berean jarri nahi izan dituztela salatu dute auzipetuek. Egoeraren berri emateko Euskal Herrian izan dira eta ARGIAK haiekin hitz egiteko parada izan du.



VICTOR SERRI / LA DIRECTA

Azaroaren 11n sei auzipetuen aldeko manifestazioa egin zuten Bartzelonan.

“Kendutakoa berreskuratzeko, kolektiboki bizitzeko, ikasitakoa desikasteko”, hala dio atearen gaineko idatziak. Tolo-sako “kaleko eskolan” sartu gara. 30 bat gazte daude barruan, Kataluniatik etorritako hiru kideak kontatuko dietenaren esperoan. Fèlix eta Karim 2013ko urriaren 12an Bartzelonan izan zen borrokaldi baten harira auzipetuta daude, Eva euren babes taldeko kidea da. Hitzaldia-aren aurretik, “Urriaren 12a. Gorrotoaren kultura eta autodefentsa legitimoa” dokumentala proiektatu dute.

Ciutat Morta dokumentala egin zuten Metromuster produkzio etxearekin elkarlanean, beren istorioa kontatu dute auzipetuek. Ikus-entzunezkoan urriaren 12aren izaera politikoa xehatzen

dute. Arrazakeriak identitateen erakuntzan izan duen garrantzia eta faxismoari aurre egiteko askotariko formek duten zilegitasuna lantzen dituzte, besteak beste. “Dokumentala une politiko egokian etorri da, jendeak gertukoa sentitzen du”, uste du Fèlixek. Kataluniako hiru kideekin arratsaldean, luze eta zabal aritzeko aukera izan dugu, kasua goitik behera azaldu dute.

Diadatik Hispanitatearen egunera

2013. urteko urriaren 12an, Hispanitatearen eguna ospatzeko, milaka espainiazale elkartu ziren Bartzelonan. Ez zen aurreneko aldia. Aurreko urtean, lehenengo Diada independentista jendetsuaren ondoren, eskuin muturre-

ko talde eta elkarte espainiazaleek ekitaldiak antolatu zituzten Kataluniako hiriburuan. Ciutadans, PSC eta Alderdi Popularraren babesla lortu zuen Katalunia plazakoak, nahiz eta tartean elkarte faxistak egon.

“Aurrez ere elkartu ohi ziren talde ultraeskuindarrak Bartzelonan urriaren 12an, baina 2012koa berezia izan zen. Beste alderdi eta talde batzuekin elkartuta antolatu zuten kontzentrazioa, itxura demokratikoagoa eman zioten nolabait esatearren”, dio Evak, auzipetuen elkartasun taldeko kideak.

Aurreko urteko “arrakasta” ikusita, berriz ere Bartzelona “betetzeko” deia egin zuten 2013an. Espainiako talde eta eskuin muturreko alderdi ugari Kataluniako hiriburura joateko autobusak antolatu zituzten. Ez zen kasualitatea. Hilabete lehenago *Via Catalana* izeneko giza-kate erraldoia egin zuten independentzia zaleek irailaren 11n.

Faxisten mehatxuei erantzuna

Hasi da dokumentala eta gazteak adi daude azpituluek ekarriko dutenaren esperoan. Neonazi batzuk ageri dira. Bandera frankista esku batean eta bestearekin erromatarren agurra egiten ari dira. Bai, urriaren 12ko irudiak dira.

Hispanitatearen eguna gerturatu ahala mehatxuak ugaritzen hasi ziren sare sozialetan. Katalunia Plazan kontzentrazioa antolatu zuten “Katalunia gara, Espainia gara” lelopean. Espainia Martxan kolektiboak berriz manifestaziora deitu zuen Sant Jaume plazatik Montjuic parkera. “Eskuin muturrekoak Santsen elkartu ohi ziren garai batean, baina herritarren presioari esker Montjuic-era bidaltzea lortu genuen”, azaldu du Fèlix auzipetuek.

Hiriburuko kaleetan zehar ibili ziren faxistak. “Horrelako kasuetan kontra-manifestazioak antolatu izan dira beti Bartzelonan”, dio Fèlixek. Goizeko zortzietan Sants auzoan jarri zuten hitzordua antifaxistek eta Unibertsitate plazaraino joan ziren, Katalunia plaza ondora, bi deialdiek bat egiten zuten lekura.

Ekitaldiak bukatu ondoren 16:30ak aldera, neonazi eta antifaxisten artean borrokaldi bat izan zen Sants auzoko taberna batean. Faxistek lesioengatik salaketa jarri zuten Esquadra Mossoen aurrean. Salaketa hori bere egin zuen Kataluniako Gorroto delituetarako Fis-kalak, Miguel Ángel Aguilar jaunak. Ustez borroka horretan parte hartu iza-

nagatik sei antifaxista auzipetu zituen. Bakoitzari hiruna eraso egotzi zien eta hamabosna urteko espetxe zigorra eskatu. Auzipetuek ez dakite zer gertatu zen Santsen, eta ez dute, egozten dieten borrokaldiaz hitz egin nahi.

Gorroto delitua edonorentzat

Bartzelonako auzitegiak gorroto delituak ikertzeko fiskaltza bat sortu zuen 2005ean, Miguel Ángel Aguilar izan da ordutik gorroto delituen fiskala. Evarren esanetan “eskuin muturraren delituak” tratatzeko sortu zuten, izan ere, gutxiengoak babestea zuen helburu. Desberdinak ziren horiek, desberdinak izateagatik zapaltzen zituztenak zigortzea. “Orain, ordea, jarrera politiko baten aurkako tresna bihurtu da”, dio Karim auzipetuak.

Urriaren 1eko erreferendumaren ondoren, Kataluniako herri ugaritan guardia zibilak zeuden hotelen aurrean protesta egiteagatik gorroto delitua egotzi diete hainbat herritarri. Zenbait irakasle ere inputatu dute, eskoletan ustez haurrak “doktrinatu” izanagatik. “Valentzian Israelen aurkako boikot ekintza bat egiteagatik ere gorroto delitua egotzi diote kide bati”, azaldu du Evak.

“Gorroto delitua edonori aplikatzen hasi dira”, salatu du Karimek. Bere funtzioa, beraz, ez du bete, gutxiengoak babesteko sortu zuten Fiskaltza, gutxiengo horien aurkako neurriak hartzen hasi baita.

Espainia Martxan, eskuin muturraren apustua

Beste irudi gogoangarri batzuk ageri dira aurrealdeko paretan proiektatuta. Aurpegia estalita Generalitatearen ekitaldi batean faxistak sartzen direneko momentua da. Hizketan ari zen pertsonari mikroa kendu eta euren diskurtsoa botatzeari ekin diote. Ez zen ordea faxista batzuen ekintza zoro bat soilik.

2013ko urriaren 10ean hamabi lagun atxilotu zituen Espainiako Poliziak, irailaren 11n Kataluniako Gobernuaren Madrilgo delegazioan sartu eta Diada ospatzen ari zirenen aurka eraso egiteagatik. Falange, Democracia Nacional eta Alianza Nacional erakunde faxisten ikurrak soinean zeramatatzatela sartu ziren Blanquernako liburu dendan. Hilabete geroago sei antifaxisten aurkako salaketa jarriko zutenetako batzuek erasoan parte hartu zuten.



Ezkerrean, faxistak esteladak erretzen. Eskuinean berriz, urriaren 12an Montjuic parkean egindako ekitaldia.

ARGAZKIAK: BRAIS G. ROUCO / LA DIRECTA

- » “Absoluzioa onartuko dugu bakarrik, bestela antifaxismoa kriminalizateko saiakera honetan arrazoia emango diegu”
- » “Faxismoa eta antifaxismoa txanpon beraren bi aurpegi balira bezala erakutsi nahi izan dituzte, bi muturrak”
- » Ustez borroka horretan parte hartu izanagatik sei antifaxista auzipetu eta hamabosna urteko espetxe zigorra eskatu zieten

Espainiako eskuin muturrak hilabeteak zeramatzan proiektu bateratu bat lantzen, ordura arte, oso zatitua zegoen. Lehenengo pausoa 2013ko uztailean hamasei puntuko manifestu bat aurkeztea izan zen. Sinatzaileen artean zeuden, ondoren Blanquernako erasoan parte hartuko zuten kolektiboak, besteak beste.

Plataformaren aurkezpen ofiziala egiteko data garrantzitsua jarri zuten mahai gainean: 2013ko urriaren 12a, Bartzelonan. Lau urte geroago, egun hartako gertakarien harira, sei antifaxisten aurka egin den epaiketan, ordea, Poliziak ez du onartu hura ekitaldi faxista bat izan zela.

2012 eta 2013 urteetako urriaren 12an Katalunia plazan egin ziren kontzentrazioak, “*Moviment de Espanya i Catalans*” elkarteak deituta. 2012tik aurrera ordea, “Espainiako Gobernuaren delegazioarekin elkartzen hasi ziren eskuin muturreko taldeak, eta independentziaren aurkako mugimendu bat sortzeko estrategia adostu zuten, horren harira sortu zuten *Somatemps* elkarteak”, Karim auzipetuaren esanetan.

“Jendea berehala ohartu zen zein zeuden mugimendu horren atzean”, aurpegia ematen zuten pertsonak talde faxistetako kideak baitziren. “Denbora pasa ahala, aurpegia garbitu eta Societat Civil Catalana elkarteak sortu zuten”, gogorazi du Karimek.



Lau urteko nekea

Amaitu da dokumentala eta guztion aurrean jarri dira bi auzipetuak eta Eva. Kasua azaltzen hasi da Fèlix eta Karimek lagundu dio. Lau urteren ondoren epaiketara “nekatuta” iritsi direla dio Karimek. Kartzelan ikusten du bere burua berriz ere Fèlixek, 2014ean atxilotu ostean hilabete igaro baitzuen espetxean. Besteak, berriz, baldintzapean aske geratu ziren.

2014ko urtarrilean atxilotu zituzten eta ordutik ezin izan dute inolako manifestazio edo kontzentrazioetan parte hartu, epaileak debekatuta. “Fiskaltzak ez ditu sekula kontzentrazio faxistak debekatu, aldiz, sei akusatuei lau urtez kontzentrazio eta manifestazioetan parte hartzea debekatu die”, salatu du Evak.

Akordioa aipatuta erantzuna irmoa da, “absoluzioa onartuko dugu bakarrik, bestela antifaxismoa kriminalizateko saiakera honetan arrazoiak emango diegu eta horrek aurrekari bat sortuko luke”. Gainera akordioa eskaini zela gaineratu du Karimek, “sei urteko kartzela zigorra eta kideak salatzea, ez genuen onartu, noski.”

Antifaxismoa jo-puntuan

Galderen tartea ireki dute eta halakoe-tan gertatu ohi den moduan, pertsona batek bizpahiru galdera egin ditu ordu erdian. Lagun batek hasitako galdera ere berak bukatu du, horrek barre al-

BIDE BAKETSUEN ALDEKO APUSTUA

Kataluniako mugimendu antifaxistak bide baketsuen aldeko apustua egin du. “Autodefentsa jarrera alde batera utzi dugu egoerak hala eskatu digulako”, dio Karimek. Irrifar txikia du ahoan, eta prozesu horrek eragin dituen kontraesanak aipatu ditu. “Bide baketsuekin lortzen ari gara-na ikusita, biolentzia alde batera uztea erabaki dugu”, gehitu du Fèlixek, “Espainiako Estatuak nahi ez zuen erantzuna eman dugu, erantzun baketsua”.

“Urriaren 1aren bueltan jende asko politizatu da”, dio Karimek. Orain esperientzia antierpresiboaren inguruan interes handia dagoela adierazi dute hirurek. “Polizia Nazionala eta Guardia Zibila polizia txarrak direla uste du jende askok, Esquadra Mossoak, ordea, onak, gure lana da erakustea guztiek erabiltzen dutela errepresioa” gaineratu du Evak. Ulertzen dute batzuek Esquadra Mossoekiko konplizitate hori izatea, irudi harrigarriak ikusteko parada izan baitute erreferendumaren harira, guardia zibilak eta Mossoak aurretik jartzea adibidez.

garak eragin ditu “eskolan”, dirudienez ongi ezagutzen dute. Antifaxismoaz galdetu du gazteetako batek.

Arriskuan dagoena borroka antifaxista bera dela uste dute auzipetuek, horregatik, antifaxismoa batzeko kanpaina diseinatu zuten: “Guztiok gara antifaxistak”. “Faxismoa eta antifaxismoa txanpon beraren bi aurpegi baliara bezala erakutsi nahi izan dituzte, bi muturrak”, dio Evak. Fèlixek ere argi du, “faxismorik ez balego, ez legoke antifaxismoaren beharrik”.

“Borroka antifaxista kriminalizatzeko saiakera”, izan da Evaren ustez. Indarkeria erabili izana leporatu diete, baina Fèlixek uste du ez dela indarkeria “autodefentsa legitimoa baizik”. Kanpainen adar ugari landu dituzte. “Desproporzionatu hitza ez dugu erabili, ez baitugu erdibideko erabakirik onartuko, absoluzioa bakarrik”, gaineratu du Evak.

Babes zabala jaso dute kanpainen, Karimek adibidez, bere herrian izugarriko elkartasuna jaso duela dio. “Gertuko-koen laguntza jaso dugu, hala ere, beste zenbait erakunde eta elkartek ere babestu dute gure kanpaina”.

Sos Arrazakeria eta Unitat aipatu dituzte besteak beste. Unitat “arku ideologiko zabaleko mahaia da”. Plataforma per Catalunya alderdi faxistaren aurka egiteko sortu zen, eta Irakeko gerraren aurka egin zuten eragileetatik hasi, PSCTik igaro eta lekuan lekuko asanblada antifaxistetaraino daude bertan. Kataluniako testuinguru politikoak eta honen aurrean PSCK hartutako jarre-rak, alderdia plataformatik kanporatzea ekarri du.

“Faxismoa esnatzen lagundu” izana leporatu zien Pablo Iglesias Podemoseko idazkari nagusiak duela aste gutxi independentzia zaleei. Polemika sortu zuen adierazpen hark ordea, karga politiko handia du.

Faxismoa esnatu izana aipatzeak, garbi adierazten du faxismoak oraindik Espainiako Estatuaren zimenduetan bizirik jarraitzen duela. Zimendu horiek zalantzan jartzeak ekarri du, “*a por ellos*” ospetsuak Kataluniako kaleak inpunitate osoz hartu izana. ■

» Kasua jarraitzeko:

Webgunea: Somantifeixistes.org

Twitter: [@encausades2013](https://twitter.com/encausades2013)

Facebook: [@absolucioantifeixistes](https://www.facebook.com/absolucioantifeixistes)

Milouda El Hankari, amazigera ekintzailea

“GURE HIZKUNTZAK EZ ZUELA EZERTARAKO BALIO SARTU NAHI IZAN DIGUTE BURUAN”

Milouda El Hankari ekintzaileak amazigeraren tarift aldaera du ama hizkuntza. 1968an jaio zen Al-Hoceiman (Rif eskualdean, amazigeraz Arrif). Garabide erakundeak eratu duen hizkuntza gidaritzari buruzko ikastaroan izan zen iragan urrian Aretxabaletan (Gipuzkoa).



Miel A. Elustondo

ARGAZKIA: ZALDI ERO

Txantxa egin diguzu zure deituraren lepotik.

Bai, nire deitura El Hankari-k, kasik “lehendakari” hitzaren hots bera baitu. Kar, kar...

Ez zara Arrifeko lehendakari, bistan da...

Ez, Arrifen jaiotako ekintzailea naiz. Soziologia ikasi nuen, Cádizen (Espainia) bizi naiz gaur egun, gure identitatearen eta gure kulturaren alde borrokan, gure herriarentzat era guztietako hobekuntzak nahi baitituz, denok sartzeko moduko herri bat, Marokoko dibertsitate guztia aintzat hartuko duen herrialdea. Askok ez du usteko, baina Maroko asko dira Marokoren barnean, hamaika identitate eta kultura ditu. Nik herrialde demokratiko bat nahiko nuke, denok sartzeko moduko bat.

Denok, eta hizkuntza guztiak.

Ez zait gustatzen hizkuntza nagusi bat izatea, batetik, eta mendeko mordoxka, bestetik. Denok –eta hizkuntza guztiok–, dugu berdintasunez bizitzeko eskubidea. Egoera ez da eroso, zentralismo handia baitago Marokon, eta periferiak bazterturik baitaude. Arrifekoa, hala ere, kasu berezia da, inoiz ez baitu izan sumisio harremanik Marokoko Gobernu-

rekiko. Bere historia eta bide propioak egin da Arrif. Hor ditugu 1921eko Abdelkrim Jatabik aldarrikatutako errepublika –Afrikan inoiz eraturako lehena, 1921etik 26ra bitarte iraun zuena–, edo 1958-59an izaniko borrokak eta Hassan II.ak eragindako genozidioa, kasu. Eta orduan bezala orain, ez dugu nahi berdinetik berdineria jardutea besterik, gure kultura eta gure hizkuntzaren jabe eta gutxieneko ongizatea izatea: azpiegiturak, ospitaleak, unibertsitateak... 1958-59ko erreboltoz gero, zona militarizatua izendatu zuten Arrif, eta izendapen horrekin irauten du.

Mohamed Xukri idazleak zioen Arrifetik Tangerrera egin zuela, mendietan jateko-rik ere ez zuelako.

Ezer ez. Bada laborantzarik, baina bizi-rauteko lain besterik ez du ematen. Ez dago terreno handirik, eta itsasoa bertatik bertara izanagatik ere, arrantzaleek ez dute aski itsasontzirik arrantzari behar bezala ekiteko. Gaurko egunean, emigranteek bidalitako dirua eta cannabis-a dira ondasun iturri bakarrak.

Hainbat hizkuntza hitz egiten dira Marokon.

Arabiera klasikoa dugu batetik, hiz-

kuntza estandarra, hitz egiten ez dena, baina eskolan irakasten dena. Albistegietan, testu idatzietan, literaturan eta gainerakoetan erabiltzen den hizkuntza kultua duzu. Bestalde, kalean, marokoar jatorrikoek berbereraren eta arabieraren tarteko dahiria hitz egiten dute, eta bestalde, amazigeraren hiru aldaera ere hitz egiten dira: tarift Arrifen, tamazighan eta hemen, eta taxelhiyt Atlasean.

Zertan da amazigeraren egoera gaur egun?

2011z gero, amazigera ofiziala da Marokon, arabierarekin batera. Ofizialtasun hori, dena den, paper erreka da, ez baitago, adibidez, epaitegietara joan eta amazigeraz mintzatzerik. Ofizialtasun hala-moduzko horrekin batera, amazigera kulturaren eta hizkuntzaren Ircam institutua eratu zuten, eta horrek hizkuntza bisualizatzeko balio izan du. Aitortua ez izatetik eta, are, pertsegitua izatetik, aitortua eta ofiziala izatera igaro da amazigera.

Ircam institutua eratu zuten, baina institutuak hizkuntzaren estandarizazioa lagundu beharrean, oztopoak jartzen dizkigu, alfabeto operatibo, erraz eta teknologia berrietan erabilgarri den bat aukeratu beharrean, tefeina alfa-



betoa onetsi baitzuen, Kristo aurreko 3.000. urtekoa, gaur egun balio ez diguna, edo teknologia berrietara egokitze-ko dirutza beharko genukeena.

Zentzugabekeria ematen du...

Marokoren erabakia da, Ircam institutuaren bidez hartu duena. Arrazoia ere bistakoa da. Aljeriako herri kabilioak alfabeto latinoa erabaki zuenez, Maroko beldur zen amazigera hiztunak batu-ko ote ziren, indartuko ote ziren. Duela bost urte ezarri zuten gure eskoletan tefeina alfabetoaren irakaskuntza, eta umeez gorroto dute, hain baita gauza konplikatu.

Zein da, hortaz, zure borroka?

Gizarte mugimenduen baitan sortu nintzen, dela amazigeraren kultur elkartee-tan, talde feministetan, giza eskubideen aldekoetan... Horien baitan jaio nintzen, eta horien baitan ari naiz lanean. Eta, bien bitartean, amazigera ikasten dut, ez baitakit zuzen irakurtzen eta idazten. Tarifit halako bat erabiltzen dugu whatsapp eta gainerakoetan, batere estandarizatu gabea.

Zein duzue lehentasuna?

Amazigera estandarizatzea, hura behar

“Askok ez du usteko, baina Maroko asko dira Marokoren barnean, hamaika identitate eta kultura ditu”

bezala idazten ikasteko. Ahoz ez dugu korapilo bihurrik. Elebakarrak ere baditugu, hainbat, Arrifen. Begira, kontatuko dizut. Oraintxe 55en bat atxilotu ditugu Casablancan, iazko Arrifeko borrokan aitzakian preso hartuak. Joan zaio ama semeari polizia-etxera bisitan, eta hizketan hasi zaionean tarifitez, zaindarien ezetz ama horri, buila eta hoska, arabieraz hitz egiteko. Ama, orduan, ez baitaki tarifit besterik hitz egiten, semeari begira gelditu da, malkoa dariola, bisitak iraun duen artean. Hizkuntza ofiziala, omen, amazigera Marokon! Ba ote? Garabideko ikastaldian Jon Sarasuak kontatu zigun istorioa duzu: har ezazu apoa eta sartu ontzi bat ur irakinetan. Laster egingo du jauzi. Aldiz, har ezazu apoa, sartu ontzi bat uretan eta hasi poliki-poliki berotzen. Bertan egosiko da apoa. Horrelaxe gu.

Dena galdua da?

Ez, gure kasuan, transmisioak irauten du. Nador eta Al-Hoceiman, adibidez, tarifit baino ez da hitz egiten. Atlasen, beren dialektoan mintzatzen dira, eta berdin hegoaldean. Jende askok hitz egiten du amazigera, askok. Emigranteen kasuan, denetarik dago, batzuek hizkuntzaren kontzientzia dute, eta amazigera transmititzen dute. Beste batzuek, aldiz, ez. Gu bigarren mailako hiritartzat hartuak izan gara, gure hizkuntzak ez zuela ezertarako balio sartu nahi izan digute buruan, ez dugula batere balio... Deiturak ere halakoxeak ditugu. Erregistroa abiarazi zutenean, gurek ez zekiten arabieraz. Funtzionarioek, aldiz, ez zekiten amazigeraz. Hala ere, gureen deitura behar funtzionarioek, baina guk deiturarik ez. “Ezizenen bat bada ere!”. Eta horrela gara, bata “Herrena”, bestea “Burusoila”, hau “Betokerra”... eta horrela iraun dute hainbat deiturak. Jasan dugun arabiaritzea izugarria izan da, herri eta hirien izenak desitxuratu dituzte. Gure Tetauen –hau da, “begiak”–, Tetuan egin dute arabiera hiztunek, esanahirik ez duen izena. Edo Xauen –“adarrak”, alegia–, Chedchaouen egin dute. Lehen esanahia zuenak, esanahirik ez du orain. ■

Abdul Saboor, errefuxiatu afganiarra

“MUGETAKO POLIZIEK GU TORTURATU ONDOREN, SELFIEAK EGITEN ZITUZTEN GUREKIN”

Afganistango Nangrghar eskualdekoa da, 25 urte ditu Abdul Saboorrek. Gerran jaio eta besterik ikusi ez duten gazteen testigantza gordina da. Besterik ez zuelako AEBetako armada eta NATOrentzat egin zuen lan Afganistanen, inoiz iritsi ez zen bizitza lasaia eskaini zioten eta orain, herrialde horiek mugak itxi dizkiote. Duela hiru hilabete inguru iritsi da Euskal Herrira, gudarengatik etxea utzi eta bi urtez ihesean izan ondoren.



TESTUA ETA ARGAZKIAK:

Irantzu Pastor

Zergatik erabaki zenuen Afganistan uztea?

Oso gaztetan hasi nintzen lanean. Nire eskualdera Amerikako Estatu Batuetako armada eta NATO iritsi ziren eta sei urtez aritu nintzen haientzat lanean. Ez zegoen besterik. Al Qaeda edo talibanez lehertzen zituzten tankeak biltzen zituen lantaldeko koordinatzailea nintzen, base militarera eramaten genituen tanke txikituak. Lana uztea erabaki nuen eta ni bezalakoentzat AEBetako armadak duen zerbitzura jo nuen. Bertan, zin egin ziguten haientzat lan egin izanagatik AEBetara eramango gintuztela, gerratik urrun, baina egun hori ez zen inoiz iritsi, beti paperak tramitatzen ari zirela erraten zidaten. AEBetako armadarentzat lanean ari nintzela jakin arren, ordura arte talibanez ez zuten inoiz nire familia ‘ukitu’. Baina kuriosoena da, AEB eta NATOrentzat lan egiteari utzi nion unetik aurrera, talibanak familiako ki-deak hiltzen hasi zirela. Banekien lana utzi izanagatik hilko nindutela, estatubatuarrek ez zidatela inoiz babesik eman-go. Amak bihotzeko gaixotasuna du, eta beraz, handik joateko esan zidan, ezingo zuela nire heriotza jasan.

Hortaz, denek nagusi bertsua dutela uler daiteke?

Honen inguruan ezin dut asko hitz egin. Aurreko galderari erantzunez, Kabulentzako talde batekin elkartu nintzen Afganistanetik ihesean irteteko. Trafikatzaile batengana joan ginen eta erran zigun diru kantitate handi batengatik Europara 15 egunetan ekarriko gintuela. Lehenengo Pakistanera eta gero Iranera joan ginen, baina Poliziak harrapatu eta hilabete eman nuen kartzelan. Oso gogorra izan zen, jendea gosez hiltzen ikusi nuen espetxean, etengabe jipoitzen gintuzten eta preso asko hiltzen zen. Handik berri ere Afganistanera bidali ninduten.

Hasierara buelta.

Bai, beste trafikatzaile batekin saiatzea erabaki nuen. Pakistan, Iran eta gero Turkiara iritsi nintzen. Batzuetan motorrean joaten ginen, baina gehienetan menditik oinez edo korrika pasatzen genituen mugak. Lagunak galdu genituen bidean, baina trafikatzaileek atzera ez begiratu eta korrika egiteko erraten ziguten. Turkian ginela, trafikatzaileek aldean genuen diru guztia lapurtu eta bahitu egin gintuzten, familiari diru

gehiago eskatzeko. Horiei gehiago ordaindu ostean, mendiz orduak eman genituen Bulgariara oinez iritsi arte. Bulgariakoa ere oso bortitza izan zen. Poliziak hartu gintuen mugan, arropa guztia kendu eta etengabe jo gintuzten, besoa puskatu zidaten eta noski, ez ninduten medikuarenera eraman. Turkiara bota gintuzten, eta berriro muga pasatzea lortu bagenuen ere, egun gutxitara poliziek berriro ere atxilotu gintuzten eta beso puskatua behin eta berriro jo zidaten “afganiar terrorista nazkagarria” oihukatzen zidaten bitartean. Horren ondoren, errefuxiatuen kanpamentu itxi batera eraman ninduten, baina handik ihes egitea lortu nuen.

Nola lortu zenuen?

Kartzelak bezalakoak dira, baina nahiko erraza da. Kanpamentu itxietan ere trafikatzaileak daude, gela berezi bat izaten dute beraientzat gainera. Baldintza onetan bizi dira eta kanpamentu osoak daki nortzuk diren pertsonekin trafikatzten duten horiek.

Baita Gobernuak eta Poliziak ere?

Bai, noski. Ezinezkoa da ez jakitea. Lo-



tura zuzena dago, ne-
gozio handia da. Erre-
fuxiatuak politikoki
erabiltzen gaituzte, gure
egoera erabiltzen dute
poltsikoak betetzeko.
Sare ilun horretan Go-
bernuen konplizitatea
eta polizien kolabora-
zioa ezinbestekoa da,
bestela ez zen trafika-
tzailerik egonen.

**Nola sentitu zinen Euro-
par Batasuneko muga
itxien aurrera iritsi zi-
nean?**

Niretzat askoz gogorra-
goa izan zen ondoan ni-
tuen lagunentzat baino.
Kontuan hartu NATO-
rentzat 6 urtez egin nue-
la lan, bizitza jokatzin
nuen egunero Europa-
ko hainbat armadaren-
tzat lanean, horri esker
gerratik urrun biziko
nintzela esaten zidaten
etengabe, *brother* (anaia)
deitzen ninduten... hori
guztia ibili zait buruan
mugetan poliziek jipoi-
tzen nindutenean edo
“terrorista nazkagarria”
deitzen zidatenean. En-
gainatua eta erabilia sen-
titzen naiz, ez diogu inori
txintik axola. Hemengo
gubernuek Afganistanen
negozio ezin hobea egi-
ten dute herrialde guztia ustiatu eta arma
salmentarekin, hori da ekarri diguten ba-
karra eta gu beren negozio erraldoi ho-
rretako pieza hutsak gara. Afganistanen,
talibanek eta Daesh-ek “musulman onak”
ez garelako hil nahi gaituzte, Europar Ba-
tasunak aldiz, atek ixten dizkigu “terro-
rista musulmanak” garelako.

**Urte bat eman zenuen Serbian, Belgrade-
ko barrakoietan bizirauten.**

Infernua izan zen iazko negua. Hotzez ez
hiltzeko, trenbideko egur zaharrak era-
biltzen genituen sua egiteko, baina oso
kutsakorra zen kea. Ez genuen uririk, as-
kok hazteria zuten, gaixo zeuden... mila
pertsona inguru k biziraun genuen egoe-
ra hartan. Belgradeko neguko argazkiak
ikusten ditudanean beti egiten dut negar.



» “Gobernuen konplizitatea
eta polizien kolaborazioa
ezinbestekoa zaie,
bestela ez zen
trafikatzailek egonen”

**Zenbat aldiz saiatu zinen Europar Batasu-
neko muga pasatzen?**

Urtebetean, hogeitaz baina gehiagot-
an saiatu nintzen Hungaria eta Kroazia-
ko harresia pasatzen. Aldi guztietan, Po-
liziak harrapatu, arropa guztia kenarazi,
elurretara bota eta beren txakurrak as-
katzen zituzten, hozka egin ziezaguten.
Gu torturatu ondoren, selfieak egiten zi-

tuzten gurekin Serbia-
ra bota baino lehen. La-
gunak desagertu ziren,
errekan itota edo hilda.
Inork ez daki zer pasa
zaien, gorpuak ez dira
inoiz agertu, baina hau
guztia Europar Batasu-
nean gertatzen ari da,
inork ikusi edo onartu
nahi ez duen arren.

**Azkenean lortu zenuen
muga pasatzea eta
orain asilo eskaera egin
duzu.**

Erakunde baten bitar-
tez eskatu dut Bartzel-
onan, baina oso zaila
da gaur egun asilo po-
litikoa ematea, Gober-
nuek ez dute nahi gu
hemen egotea. Europan
eta Euskal Herrian mo-
mentuz ezagutu dudan
onena herritarren el-
kartasuna da. Politika-
riengandik ez dut ezer
espero. Inork baino
hobeto dakit zer egiten
duten Afganistan be-
zalako herrialdeetan,
ongi dakit “demokra-
zia eta giza eskubideen
izenean” egiten duten
negozio iluna zein den.

**Nola gelditu daiteke
hau guztia?**

Argi izan behar da az-
ken helburua ez dela guk mugak pa-
satzea, ezta gu hainbat herrialdeetan
banatzea ere. Oinarrira joan behar da.
Gure herrialdeak gerran daudelako,
hiltzen gaituztelako, egiten dugu ihes.
Gure herrietan eragiten dituzten ge-
rrak gelditzeko exijitu behar zaie he-
mengo gobernuei. Diru asko jartzen du
Europar Batasunak mugak eraikitze-
ko eta horiek “zaintzeko” poliziak ordain-
tzen. Dirutza hori gerrak bukatze-
ko erabiliko balute, ez ginateteke erre-
fuxiatu krisi honen aurrean egonen. Gerra
eta gerraren negozioa gelditu behar
dira, eta horrela, ez gara gure etxetik
ihesean joan beharko. Nik argi dut,
bihar bukatuko balitz Afganistango ge-
rra, bihar bertan bueltatuko nintzateke
nire herrialdera. ■



Eider Rodriguez



Eñaut Elorrieta



Beatriz Zabalondo



Eneko Sagardoi



Miren Amuriza



Olatz Osa



Amelía Barquín



Kike Amonariz



Zuriñe Hidalgo



Iñaki Goizelaia

Geroa zugaran: geure mundua kontatzeko

Izan **berria laguna**
[Berria.eus/geroazugan](https://berria.eus/geroazugan)



berria
#BERRIAKTS

Durangotik Kizkitzara



Jakoba Errekondo
jakoba@bizibartztea.eus

Landareak lantzeko 2018ko gida liburuarekin erotu samartuta nabil batetik bestera. Eromena lehertu da Durangon. Jendeak ikaragarritzko grina du landare kontu honetan; gero eta handiagoa. Batzuk jakin-minez, beste batzuk hau eta hura galdezka, zenbaitek kargu hartu ere bai halako esan izan dudalako, mordoxka bat baita erakustera ere. Horiek ditut gustukoen. Etxean edo herrian zer ikusi eta ikasi izan dutena erakusten dutenen eskola da *Bizi Baratztea*. Ikasle eta irakasle batera. Eman eta hartu.

Irakasle horietako bat Ezkioetik etorri zitzaigun. Aspaldi bila eta aurkitu ezinik dabilen landareren baten galdezka zetorren, eta ikasteko zuena erakusten jarri genuen. Arakatzaz (*Ribes uva-crispa*) zuen gaia. Ez duela aurkitzeko pulamenturik egiten, eta ea non edo han topatzeko aukerarik ezagutzen ote nuen. Ustez bide egokia erakutsi ondoren, beraiek arakatza nola deitzen duten errepikatze eskatu nion, eta Ezkion “arkazune” esaten diotela.



CALLE EKLUND

Arakatza (Ribes uva-crispa).

Astelehenean, Durangoko sukarrari buelta emateko ahaleginean, sutondotik jarri nuen “arkazunea” hitza eta bere argazkia Bizi Baratztearen Instagramen, eta horma horretatik errebotean baita Facebooken ere. Eta haietan eromena berpiztu. Felixek dio Otxandion “agarratza” esaten diotela, Rosinak Arrietan “angarratza” erantsi, Imanolek Matxinbentatik “indi-mahatsa” diotela.

Behin metxa piztuta, neroni hasi naiz bateko eta besteko hitz biltegietan: arakatx, algarratx, algarratz, argarrax,

argaratxe, larmats, larre-mahats, lahar-mahats, mahats-lahar, urritxilu eta zenbaitek baita arkakarats ere.

Frantsesek “berdelaren arakatza” deitzen diote. Inondik ere, arrain horren laguntzaile jateko ohitura dute. “Arkazuna” deitzen dioten Ezkioetik ez da urruti Itsasoko Kizkitzako ermita, berdel arrantzaleen debozio bereziko ama birjina duena. ■

IRAKURLEAK ✉ GALDEZKA

Galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua landareak@argia.eus helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

Kaixo Jakoba, permakultura erara jarria dugu baratzea, eta azkenaldian barazki artean perretxiku batzuk ari zaizkigu ateratzen. Zer esan nahi du horrek? Eta desorekaren baten adierazle balitz, zer egin genezake zuzentzeko?

Bego Tapia (Altzo)

Kaixo Bego. Perretxikoak azaltzeak gauza bat adierazten du nabarmen: hezetasuna dago. Baina baita ere bizitza asko dagola lur horretan. Horixe bilatzen da lurrean landareei azpiak egiten zaizkienean.



Arazoa izan dezakezu hezetasun hori gehiegizkoa bada eta lehorzaleak diren landareak jartzea. Horri aurre egiteko taulenetan edo baratzeke zatietan tontorrak egin. Lurra bera tontortu edo egurrekin, harriekin edo dena delakoarekin lurra altza hezetasun horri ihes egin eta lur harroa eta lehorragoa izateko.



TTAK KOLEKTIBOA

“Aliantzak dira proiektuak garatzeko aukera polit eta bakarrak”



Garazi Zabaleta

@tirikittrann

ARGAZKIA: TTAk KOLEKTIBOA

Bizkaiko Ttak Kolektiboko kide da David Lopategi. Lantaldea osatzen duten zazpi lagunak lehenagotik ezagutzen baziren ere, Baserritik Mundura ikastaroko lehen edizioan hasi ziren elkar-lanean. “Denok genbiltzan lehenagotik elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren inguruan lanean: batzuk baserritarrak ziren, beste zenbait eragile sozialetako kide”, azaldu digu Lopategik. Badute batzen dituen beste zerbait ere: “Lan kolektiboaren sinesle amorratuak gara”. Lan kolektibo horretatik sortu dute Ttak.

Teoriatik praktikara

Ikastaroan elkarrekin oso gustura aritu ondoren, sortutako konexioari jarraipena eman behar zitzaizela pentsatu zuten. “Oinarri ideologiko sendoa hartu genuen ikastaroan, eta etorkizunari begirako ideiak ere argitu genituen”, dio Lopategik. Horri segida ematen eta teoriatik praktikara pasatzen ari dira orain.

Kolektiboaren lehen proiektua Ttak Kontserbak da. Gamizeko (Bizkaia) baserrian ekoizten dituzte elikagai ekologikoak, ondoren Zeberioko Maskilu

kontserberan eraldatu eta merkaturatze bide laburretatik edota zuzenean saltzeko. “Zirkuitu osoa ixten duen proiektu honekin lehen sektorean lekutxo bat egitea eta beste eragileekin saretzen joatea da asmoa”. Argi dute kontserbena lehen urratsa baino ez dela eta etorkizunean elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren inguruko esparru gehiago landu nahi dituztela.

Ekoizpenetik harago

Elikadura burujabetza osotasunean ahalik eta gehien garatzea dute helburu. Formakuntza, kolektiboen dinamizazio, sentsibilizazio nahiz kontsultoria lanak egitea, besteak beste. “Paradigma eraldatzailea da elikadura burujabetza, gauza guztiak ukitzen ditu: lurraldeaz ari gara, elikaduraz, harreman sozialez, ekonomiaz, paisaiaren kudeaketaz, ingurumenaz... Gure proiektu kolektiboa horren guztiaren zerbitzura jarri nahi dugu”, dio Lopategik.

Aurtengo udaberrian sortu berria, denbora laburrean ari da fruituak ematen proiektua. “Prozesu polita izaten ari da, asko eztabaidatzen dugu, eta batez ere, erabakiak adostasunetik hartzen ditugu”. Eta jendearen harrera ona ikusita, pozik daude: “Gure apustuari indarra eta ilusioa ematen dio”. ■

www.bizibaratzea.eus

JAKOBA ERREKONDOREN HITZALDIAK

Abenduak 20: Bilbo

19:00etan Ekoetxean *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 23: Oñati

11:30ean Gaztetxean *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 28: Zeanuri

18:30ean Kultur Etxean *Landareak Lantzen* aurkezpena eta kontsultategia.

Abenduak 29: Ormaiztegi

18:00etan Zumalakarregi Museoaan *Altza Porru* Komikihitzaldia eta kontsultategia, Jakoba Errekondoren azalpenak eta ilustratzaileen zuzeneko irudiekin.

Urtarrilak 9: Usurbil

16:00etan Esperientzia Eskolan *Landareak Lantzen* agendaren aurkezpena eta kontsultategia.

Urtarrilak 26: Durango

19:00etan Euskal Museoaan Lurra gaiaren inguruan Jakoba Errekondoren hitzaldia, *Hitzez eta Ahotsez 2018* egitasmoaren barruan.

Urtarrilak 27: Durango

11:30etan Berdeago Azokan, Jakoba Errekondoren hitzaldia eta kontsultategia.

Bizi Baratzea buletina jasotzeko, eman izena

Zure e-postan jasoko dituzu azken artikulak, galdera-erantzunak, agendako ekintzak, hitzak, esaerak, argazkiak... Euskal Herri osoko edukiak biltzen dituen landareei buruzko buletin bakarra jasotzeko, bidali zure e-posta helbidea hona: bizibaratzea@bizibaratzea.eus

GURE GAIAK DIRA GURE BALIOAK | PARTE HARTU ETA IRABAZI SARI HAUETAKO BAT



Aste honetako nabarmendua

“ARRASATEKO KOOPERATIBAGINTZA” LIBURUA

4

Arrasateko kooperatibakintzaren erronkak eta dilemak

Igor Ortegak eta Leire Uriartek hainbat kooperatibetako ardura-dunek eta bazkideek egindako hausnarketak papereratu dituzte. Lanaren abiapuntua Fagor Etxetresnak kooperatibaren krisia eta itxiera da. Krisiaren gakoak ulertzea eta kooperatiba honen esperientziatik ondorioak ateratzea ditu xede.



Eragile hau hobeto ezagutzeko:



LANKI

Mondragon Unibertsitateko Kooperatibagintzaren ikertegia
2000. urtean sortu zen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean.

#kooperatibagintza
#ekonomiasoziala
#krisia
#balioak

Abenduko sariak

1




Feminizidioa Euskadin eta Nafarroan
2 liburu

2



Hernaniko eta inguruetako anfibioak eta narrastiak
3 liburu

3



Energia Trantsizioak. Piztu Aldaketa! DVDa
3 ale

4



Arrasateko kooperatibagintzaren erronkak eta dilemak
2 liburuxka

Parte hartzeko: ☎ 943 371 545 | gunea@argia.eus | www.argia.eus/gunea

Eragilea bazara, zabalkunderako materiala baduzu eta zure lana ezagutarazi nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan.



Kontuan izaten dugu erantzunkidetasun soziala?



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Ez da hainbeste denbora Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE) kontzeptua ezagutu nuela. Izena behintzat orain biz-pahiru edo gehienez ere lau urte jarriko nion, agian ordura arte nire inguruan naturalki ikusi edo bizi izan nituen zenbait praktika eta egiteko moduri. Baina orain ESE da, gure mikroan bederen, modan dagoen hitza. ARGIA ere zenbat aldiz idatzi dugu honi buruz? Zenbat esperientzia kontatu eta hausnarketa plazaratu ditugu? Ez daukazu erantzun beharrik, irakurle; asko, badakit. Baina guk idazten dugun hori egiten al dugu gero etxe barruan?

Farapi produkzio kooperatibak parte-hartze prozesu bat bideratu du ARGIA azken hilabeteotan, enpresak duen erantzunkidetasun sozialaren inguruan. Farapik tresna bat sortu du gaia erakunde eta enpresetan lantzeko: diagnostikoa egin eta emaitzen araberako lan ildoak markatzeko. Erantzunkidetasun sozialeranzko bidean jartzeko, edo bidean direnek hobekuntzak egin ahal izateko. Kasu honetan, Beterriko Garapen Agentziarekin elkarlanean eman ditu lehen pausoak kooperatibak tres-

na hau eskualdeko hainbat enpresatan aplikatzeko.

Baina nola neurtzen da erantzunkidetasun soziala?

"Enpresak dirua irabazteko soilik antolatzen dira normalean", azaldu digu Nico Foroni Farapiko kideak. Baina zein inpaktu dute ingurumenean, gizartean edo lurraldetasunean? Bederatzi irizpideren inguruko hausnarketa lantzen da lehen saio hauetan; hornitzaile eta bezeroekiko harremana, langileen baldintzak, ingurumena edo parte-hartzea, esaterako.

ARGIAk gai hauek aurretik ere landuta dituela nabaritzen dela azaldu digu Nico Foronik. "Bederatzi irizpideetan oso emaitza onak eman ditu, baina badiu gauzak hobetzeko, eta horri heldu behar zaio orain", dio. Hiru mailatan banatzen da ibilbidea. ARGIAk lehenengoa egin du, diagnostiko eta hausnarketarena. Hortik abiatuta, bigarren fasera pasako da: jada emaitzak eskuetan izanik, hobekuntza plana jarriko da martxan, eta epe ertainera eman beharreko pausak markatuko dira. ■



DANI BLANCO

Zuloan liburua aurkeztu dugu

Urko Apaolaza ARGIAko kazetariak eta Unai Oñederra Manu Robles-Arangiz fundazioko kideak, *Zuloan* liburua aurkeztu dute jendaurrean Donostiako Kaxilda liburudendan. AHTren lanetan langileak pairatzen ari diren esplotazioa, Eusko Jaurlaritzako lan ikuskaritzaren rola eta liburua idazteak eragindako go-goeta eta galdera berriak entzuteko aukera izan zuten bertaratutakoek.



Durango aztoratzen beste urte batez

Abenduaren 6tik 10era ARGIA-Bizi Baratzea txokoa elkartu ginen Argia Jendea: Komunitatera jende berri mordoxka batu da; *Euskaraz bizi nahi dugunon mapa* eskuetatik kendu ziguten; *Carrers* kamisetek era guztiak gorpuztak edertu dituzte; *Zuloan* oparituko du Olentzerok etxe batean baino gehiagotan; urte berrian ez galtzeko ARGIAren egutegia, ilargiarena eta Kalea Guztiona Da-rena eskuetatik kendu dizkigute; Jakoba Errekondok letxuekin batera banatu du *Landareak Lantzen* agenda, Antton Olariagak umorea barreiatu bitartean... Kronikak irakurtzeko, argia.eus-en Boli-grafo Gorria blogean dugu aukera.

ERREGE ALFERREN NEURRIKO MARATOIA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**

@irazuabarrena

Grezia, K.a. 490. Maratongo guduan greziarrek persiarrak mendean hartu zituzten. Herodotok, Plutarkok eta Luzianok jaso zuten garaipenaren berri eta, bertsoak bertso, kondairak dio Filipidesek Maratonetik Atenaserako bidea korrika egin zuela albistea jakinarazteko, eta misioa bete ondoren hil zela. Horixe da maratoi modernoaren oinarria eta askok uste dute probaren 42,175 kilometro horiek Maraton eta Atenasen arteko distantzia direla. Baina bi puntuen artean 200dik gora kilometro daude.

Lehen Joko Olinpiko modernoetan (Atenas 1896) 40 kilometroko lasterketa prestatu zuten. Handik lau urtera, Parisko jokoetan ere neurri bera aukeratu zuten, oso zehatzak izan ez baziren ere: helmugara iritsi ziren maratoilariek 40,260 kilometro egin zituzten.

1908ko Londresko jokoetan Windsorretik Londreserako 40 kilometro inguruko ibilbidea prestatu nahi izan zuten, errege familia Windsorren bizi zela aprobetxatuz. Lasterketa errege jauregitik bertatik abiatuta, bertan bizi zirenek etxetik irteteko beharrik ere ez zuten izango probaren hasiera erosotasun osoz ikusteko. Eta, hala, maratokia errege-erreginen leihopean hasi zen. White City estadioko errege-palkora iristeko 42,175 metro egin behar zituzten. Baina zer dira bi kilometro gehiago halako lasterketa luzean?



HULTON ARCHIVE

Alexandra Danimarkakoa, Eduardo VII.a erregearen emaztea, Dorando Pietriri kopa ematen. Italiarra izan zen Londresko 1908ko Joko Olinpikoetako maratoiaren helmugara iristen lehena, baina laguntza jaso zuelako deskalifikatu zuten. Hala ere, erreginak ahalegina eskertu nahi izan zion.

Bada, joko haietan distantzia gehituak emaitzan eragina izan zuen. Dorando Pietri italiarrak 39. kilometroan hartu zuen lasterketa burua eta 40.ean erraz ari zen. Baina estadiora iristean pott egin zuen eta behin eta berriro erori zen. Ingurukoek –besteak beste, Arthur Conan Doyle idazleak– aldiro altxatzen lagundu zioten eta, helmugara iristen lehena izan arren, laguntza horren erruz deskalifikatu zuten.

Stockholmen (1908) 40,200 kilometro egin zituzten eta hurrengo joketan, Anberesen, inoizko maratoi olinpikorik luzeena egin zen: 42,750 kilometro. Azkenean, 1921ean distantzia behin betiko finkatzea erabaki zuten. Atletei ahaleginik handiena eskatzen zien lasterketarako, errege familiari ahaleginik txikiena eskatu zion distantzia aukeratu zuten: 42,175 kilometro. ■



BALAJJUGADESH


Lehen transplanteak (eta errefusak)

Hil honetan 50 urte bete dira bihotzeko lehen transplante arrakastatsua egin zutela. Baina saiakerak askoz lehenago hasi ziren. K.a. VII. mendean Sushruta sendagile hinduak (argazkian) medikuntza aiurbedikoari buruzko tratatu bat idatzi zuen eta hor jaso zuen anputatutako sudurrak –ohiko zigorra garai eta lurralde haietan– berregiteko metodoa: kopetako azala

transplantatu behar omen zen. Handik lau mendera, Hua To txinatar medikuak organo kaltetuak kendu eta ondo zeuden beste organo batzuk transplantatzen zituela geratu zen jasota. Baina ez dugu ebakuntza horien emaitzen berri. Ziurrenik gaixoak ez ziren bizirik aterako, bi milurtekoetik gora beharko baitziren organoen errefusaren aurkako borroka irabazten hasteko. ■

Egilea: Ana Zambrano

Gurutzegrama



Ezker-eskuin:



1. Goi-mailako. **Argazkiko herria (Nafarroa)**.
2. Bizkaiko badia. Apar, bereziki ahoari dariona.
3. Jauzilari.
4. Eskuineko erpuruarekin hiru gurutze egin, bat bekokian, beste bat aho inguruan eta hirugarrena bular aldean, hitz jakin batzuk esanez.
5. Automobil. Zergatik? (Iparraldean).
6. Egite, ekintza. Zentzutzerara behartu.
7. Kalea. Zeruari dagokiona.
8. Oraindik. Bere artean.

Goitik behera:

1. Gaixo, errukarri. Nafarroako udalerria.
2. Dimako auzoa (Bizkaia). Adar txiki, kima.
3. Engainua, azpikeria.
4. Albistari.
5. Aho-gaixotasun, aholegar. Indioaren ikurra.
6. Toki hartan. Zerezko atzizkia.
7. Nafarroako mendia, Erronkarin.
8. Eratzen, ekoizten.
9. Rutenioaren ikurra. Urtu aditzaren ekintza.
10. Emakumezko izena. Deus.
11. Bare, lasai.
12. Truke.
13. Puska.
14. Barazki hostotsuak.
15. Su-arma batek jaurtigaia aurtikitzea.

Esaera zaharra

Koka ezazu puzzlearen pieza bakoitza bere tokian eta esaera zahar bat agertuko zaizu.



Anagramak

Hitz bakoitzak aurrekoak dituen hizki berak ditu, bat izan ezik, baina bestelako hurrenkeran.

- Sama, iduna
- Zartako, ukaldi
- Upel
- Ileak (bizkaieraz)
- Ahalmena, boterea
- Emakume gaztea
- Segurki, noski
- Diru-zigorra
- Musika
- Jakina
- Erraz sutzen dena
- Arretaz begiratu
- Ihinztargailu

LEPOA
ISIPU

Sudokua

Erraza

9	1						5	7
6		5	2			4	8	9
		7	3					2
8		9			7			6
	4		9		6		3	
3			8			2		5
2					9	8		
7	6	8			3	9		1
1	9						6	3

Zaila

			9					1
		8		5		6		
5			6				3	
	5			2		3		
	4						9	
		7		6			8	
	7				1			2
		9		3		4		
1					7			

Ebazpenak

"Semea duen lapurtak, badu lanerako laguna".

ESABERA ZAHARRA

- ISIPU
- IKUSI
- SUKOI
- NOSKI
- SOINU
- ISUNA
- NASKI
- NESKA
- ESKUA
- URLEAK
- KUPUL
- KOLPE
- LEPOA
- ANAGRAMAK**

1	6	9	7	6	4	2	2	8	1
2	8	9	5	3	6	4	1	7	2
3	7	5	8	4	1	6	2	2	2
4	2	7	3	6	5	1	8	4	9
5	4	3	1	7	8	2	9	5	6
6	5	1	4	2	9	3	7	6	8
7	6	4	3	1	7	8	2	9	5
8	5	1	4	2	9	3	7	6	8
9	3	6	9	8	2	5	4	1	7

Zaila

1	9	4	7	8	2	5	6	3
7	6	8	4	5	3	9	2	1
2	5	3	1	6	9	8	7	4
3	7	6	8	1	4	2	9	5
5	4	1	9	2	6	7	3	8
8	2	9	5	3	7	1	4	6
4	8	7	3	9	5	6	1	2
6	3	5	2	7	1	4	8	9
9	1	2	6	4	8	3	5	7

Erraza

- 1. Gai, Oba, Abar, 3. Inuzura.
- 2. Zentzutzerara behartu.
- 3. Jauzilari.
- 4. Zentzutzerara behartu.
- 5. Auto, Zentzutzerara behartu.
- 6. Oba, Abar, 3. Inuzura.
- 7. Zentzutzerara behartu.
- 8. Oba, Abar, 3. Inuzura.
- 9. Riu, Urtze.
- 10. Ane, Ezer.
- 11. Nare.
- 12. Truk.
- 13. Zati.
- 14. Azak.
- 15. Tiro.



Eider Rodriguez idazlea

“Literaturarekin ukitu eta zauritu ez ditugun lurralde asko daude oraindik”

Sei ipuinek osatutako *Bihotz handiegia* (Susa) liburua argitaratu du Eider Rodriguez idazle errenteriarrek. Aurrez landutako tonutik asko urrundu gabe, konbikzio berrituekin idatzi ditu ipuinok. Dagoeneko asko egin dituela-eta, bestelako elkarrizketa osatzen ahalegindu gara; eta lortu ere, lortu dugula esan digu.



Lander Arretxea Bereziartua

@larretxea

ARGAZKIAK: BATISTE EZEIZA

Ez dira oso serio hartu behar idazle batek aurkezpenean esandakoak, baina non-baitetik hasi behar: *Bihotz handiegia*rekin idaztearen plazera berreskuratu omen duzu.

Denbora asko egon naiz fikzioa idatzi gabe eta beldur pixka bat banuen: eskua galdu izana... Tarte horretan askotan galdetu diot nire buruari: “Idatzi, zertarako?”. Baina behin hasita, konturatu nintzen baietz, oraindik ere gustatu egiten zitzaidala, eta gauzak gertatzen zitzaizkidala idazten dudanean.

Lehenengo liburuetatik hona asko aldatu zaizkizu “zertarako” galdera horren erantzunak?

Apur bat bai. Oraingo honetan idatzi dut ni arduratzen nauten gauzei buruz, eta ez horrenbeste nire ustez besteei gustatuko zaien gauzei buruz. Lehenengo liburua azken finean beti da abentura bat, idazle izatea zer den ezagutzea eta abar. Gero bigarrena eta hirugarrena bai izan ziren nolabaiteko inertzian idatziak; eta uste nuen gel-

dialdi luzeago hau kalterako izango zela. Baina iruditzen zait ezetz, konbikzioak indartu ere egin zaizkidala. Gauza asko dauzkagu guk, eta dauzkatik, kontatzeko eta idazteko. Lurralde eta espazio asko ez ditugu literatura-rekin ukitu, zauritu edo zabaldu oraindik. Gainera ni bezalako norbaitengan –adin jakin batekoa, genero jakin batekoa, lurralde jakin batekoa...– gurutzatzen dira hainbat eta hainbat ardatz interesgarriak izan daitezkeenak, edo behintzat beste ikuspegi batetik begiratzeko balio dezaketenak. Zentzu horretan, indartuta idatzi dut, ikuspegia zabaldua.

***Bihotz handiegia* ipuina da luzeena. Ohikoa da izenburura ipuin bat eramateko joera, eta oker ez banago, hala egin duzu zuk liburu guztiekin. Alferkeria da, edo ondo biltzen du izenburuak bestela ere liburuaren muina?**

Badago nire ezin edo herren bat, izenburuak jartzeko zailtasun bat, bai. Askokostatzen zait, baita besteen izenburuak

ondo ulertzea ere. Baina beste plano batean, liburu osoaren tonua biltzen dute bi hitz horiek. Gaixotasun edo akats bati egiten dio erreferentzia; baina aldi berean bihotzak okzidentean duen maitasunarekiko lotura dago; eta gainera, “handiegia” horrek egokitasun falta ere adierazten du.

Ipuinotako pertsonaiek nork bere buruari nekez aitortzen dizkion desirak eta pentsamenduak dituzte, baina zaila da nolabaiteko enpatia ez sentitzea. Halako pertsonaiek erakartzen zaituzte eta ezin diezu iskin egin, edo bada hautu bat horren atzean?

Nik uste dut haiek aurkitzen nautela ni, baina bizitza errealekoak ere halakoxeak gara. Inguruan dugun pertsona anodinoenak ere halako batean harrituko gaitu auskalo zerekin. Ez zait iruditzen, beraz, liburuako pertsonaiek ez-ohikoak direnik: denak bezain arraro eta sinple dira. Baina, agian, momentu txar edo ez-ohiko batean harripatu ditut.

Esplizituki azaltzen da batzuetan, besteetan ez, baina ipuin asko daude zure errealitate gertukoenean kokatuta. Geografikoki behintzat: Donostia, Hendaia, Errenteria...

Iruditzen zait egon dela euskal literaturan ihes egiteko joera bat: gureak bezalako izen-abizenak dituzten pertsonengandik, gu bezalako jendea bizi den herrietatik... Vancouverreko Alice, askualo nongo Jack... Gure izenekin, gure herrietan, gureak bezalako problemak dituzten pertsonen berri eman nahi izan dut nik. Errealismo horrek asko erakartzen nau: gure miseriak beste zerbaitetan bilakatzeko aukera horrek plazera ematen dit.

Zazpi urte joan dira *Katu jendea* argitara eman zenuenetik. Tartean, Joseba Sarrionandiaren obra eta itsasoarekin duen harremana aztertu dituzu doktorego tesian. Izan du lan horrek eraginik ipuin hauetan?

Neurri batean bai. Hiru urtez beste idazle baten obrari begira aritzeak ematen dizu perspektiba bat: zure lanarekiko, hizkuntzarekiko, bizi zaren tokiarekiko... Horrek onerako eragin dit. Aldi berean, beldurra galdu diot huts egiteari. Oso denbora laburrean idatzi behar izan nuen tesia, egunero aurreratuz... Beste helburu eta erregistro batekin aritzen zara bai, baina muskulua indartzen lagundu didan gimnasia ariketa modukoa izan da, hala ere.

Zinema ikasketak egindakoa ere bazara. Ikus-entzunezko lengoaiaren ezauzgarrietako bat bada pentsamendu edo gogoetak ekintza eta irudiekin erakustea. Literaturan gogoetei hitzak jartzea errazagoa izan arren, zuk ere maiz jotzen duzu irudietara.

Pertsonaien hausnarketa intelektualek pisu handia duen literatura horrek, pentsamenduaren literaturak, asko aspertzen nau. Horretarako nahiago dut saiakera irakurri. Zinemak, orokorrean, beste bide bat hartzen duela egia da, baina baita idazle askok ere: Ameriketan, atlantikoaren beste aldean, ekintza eta dialogoaren bidez kontaktzen da nagusiki, eta ni ere hor nago erosoan.

Gorka Arrese Susako editoreak esan duenez, idazle gisa hazi zarelako daude liburu honetan aurrekoetan baino ipuin luzeagoak.



Donostian hitz egin dugu Eider Rodriguezekin, "*Bihotz handiegia*" liburuan ere agertzen den hirian.

Oraingo honetan, ipuin batean kontatu nahi izan ditut istorio bat baino gehiago, eta horrek berez dakar espazio gehiago behar izatea. Kontatu nahi nuena kontatu nahi nuelako atera dira orri gehiagoko ipuinak. Azkeneko ipuinaren abiapuntua da ama batek alabari esaten diola dituen eskuak ez direla be-

reak. Horrekin egin zitekeen ipuin labur eta efektista bat, baina ez zen hori nik kontatu nahi nuena. Gauza gehiago nahi nituen esan edo erakutsi: bi gorputzen arteko distantzia, ama eta alaba zenbat urrundu ziren, biek ala biek, oso modu desberdinean bada ere, euren jatorritik urruntzeko hartutako joera.

Bide batez: ez da Arreserekin lan egin duzun lehenengo aldia, baina Susan editatuko duen azkenetakoa izango da *Bihotz handiegia*. Nola izan da prozesua?

Erraza izan da. Oso presente egon da, baina ganean egon gabe. Berak errespetatu du nire erritmoa eta esango nuke nik ere berea errespetatu dudala. Bera ere, ni bezala, meyoratu egin da adinarekin, eta oso ondo ulertu dugu elkar. Barre asko egin dugu bidean, eta nire momentu neurotikoenetan ere jakin du ni lasaitzen. Pena handia dut Susako editore lana utziko duelako, egia esan.

Orain gutxi gorputzek Bertso Txapelketa Nagusi honetan izan duten garrantziak idatzi duzu. Zure ipuin hauetan ere gorputzak oso presente daude.

Beltzek idatzitako literatura asko irakurri izan dut, bereziki Txalaparta argitaletxean lanean aritu nintzen garaian, eta idazle beltzek asko egiten duten zerbait da gorputzari buruz idaztea. Usainak, formak... Emakumezkoek bereziki. Nik uste dut badagoela hor norbera ukitu, usaindu eta paperera eramanez bes-teentzat ere ukigarri, alegia ikusgarri, egin nahi bat. Nire kasuan ez da nahita egindako zerbait izan, baina *a posteriori* konturatu naiz baietz, gorputzen deskribapenek, haiekin jolasten duten pertsonaiek, tokia dutela liburuan. Liburuaren azalak ere ondo ordezkatzeko du hori.

Egia da euskal literaturak ipuin-liburu ugari eman dituela, baina badirudi oraindik idazle batek ez duela pauso definitiboa eman nobela bat idazten duen arte. Zuk ipuingiletzat duzu zure burua?

Nik belarri hobeaz izango banu agian

» “Iruditzen zait egon dela euskal literaturan ihes egiteko joera bat: gureak bezalako izen-abizenak dituzten pertsonengandik, gu bezalako jendea bizi den herrietatik”

» “Pertsonaien hausnarketa intelektualek pisu handia duen literatura horrek, pentsamenduaren literaturak, asko aspertzen nau”

» “Debaluatutako esparrua da literaturarena, eta hori ez da naturalki gertatzen. Badaude erabaki batzuk, egunero modulatzeko gaituztenak”

idatziko nuke poesia, edo kalakariagoa banintz, nobelara joko nuke akaso. Baina agian nire ezaugarri pertsonaletara eta nire bizi baldintzetara ondoen egokitzen den generoa ipuinarena da. Ez da ez hobe, ezta okerragoa ere. Egia da ez

duela nobelaren prestigio bera, baina beste aukera batzuk eskaintzen ditu. Irakurri denetik irakurtzen dut, hori bai. Horretan ez naiz batere zurruna.

Saiakera idazten ez, baina sustatzeko lanean bai ari zara, Eskafandra bildumaren bidez.

Kultur munduko lau lagun hasi ginen hasieran biltzen, asmo jakinik gabe, kultura, euskara eta feminismoa uztartzen zituzten zenbait kezka konpartitzeko. Taldea handitu zen pixkanaka, eta azkenean hortik atera dena izan da bilduma bat, guretzat feminismoan erreferentziazkoak izan daitezkeen liburuak euskarara ekarri nahi dituen. Baina erronka ez da hori bakarrik: liburu horien sustapena egitea eta haietan dauden borrorak gurekin uztartzea ere bai. Gaur eta hemen eragiteko bokazioa du, mundua pentsatzeko bideak proposatzeko. Silvia Federiciren *Caliban eta sorgina* atera dugu oraintxe, eta sekulako liburu da, ni asko markatu ninduen.

ETBtik kendu duten Sautrela literatura saioko taldean ere hartu zenuen parte. “Analfabetismo kulturala bultzatzen ari dira, arrakasta handiz, gainera”, esan zenuen Berrian.

Debaluatutako esparrua da literaturarena, eta hori ez da bakarrik naturalki gertatzen. Badaude erabaki batzuk, egunero modulatzeko gaituztenak. Literatura ez interesatzeko bezala modulatu nahi izan gaituzte, eta horren ordaina da daukaguna. Kultur politika nefastoen ondoriozko hau. Suizidio komunitario eta programatu bat da, ez bakarrik literaturarekikoa; kulturarekikoa eta hizkuntzarekikoa ere bai. Haserretu egiten naiz gai honekin. ■

DATU PERTSONALEN BABESA

EUROPAKO ARAUTEGI BERRIA
Zure enpresa egokitzen lagunduko dizugu



SIGACUS

943 453 588 · www.sigacus.com

Zure jendea, zure hedabidea, zure iragarkia.

Jarri publizitatea hemen



ARGIA

943 371 545
publiz@argia.eus
www.argia.eus/tarifak



MOYUA

HILETA ZERBITZUAK

Zure momentu zailetarako

Tel.: 943783447 - 617442466
mmoyua@telefonica.net
Otadui Gotzaina kalea, 27 - Oñati

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Itzulbiderik ez denean



Iratxe Retolaza

Literatura-itzultzaile baten ahotsa gorpuztu du Anjel Lertxundik *Horma* nobelan, hainbat bidegurutze bizi dituena: alzheimerra diagnostikatu diote amari, familiako sekretu batek kolpatzen du, Marta etxera bizitzera joan zaio eta eguneroko elkarbizitzak urradurak sortu ditu bikote-harremanean, ofizioaren prekarietateak ziurgabetasuna sortzen dio... Amaren gaixotasunak iraganeko mamuak biziberritu dizkio, eta amari mintzo zaio nobelan, esan gabekoei bide emateko. Hormatze-bidean ama, eta hormaturik ere Fidel, amaren memoria-galerak izoztu bailuen, ez aurrera, ez atzera, erabakimena urratuta. Itzulginguruka dabil, beldur dio korapiloak errotik heltzeari: porrotaren itzalak geldiarazten du. Ahots desesperatu eta konformagaitza gorpuzten du Fidelek.


Egunerokoari aurre egiteko ezintasun horretan, familiako sekretua argitzeko gogoia pizten zaio, jatorrietara edo sustraietara jotzeko premia bizi du. Jatorriarekiko temak originaltasunaren inguruko auziak harrotuko dizkio, sorkuntza literarioaren eremuan, itzulpen-lanaren testuinguruan, nortasun pertsonalari traza hartzean. "Memoriarik gabe ez dago originaltasunik" dio Fidelek. Ahots mindu horrek Anjel Lertxundiren hainbat nobelatan landuriko kezkek jorratzen ditu: iraganaren zama, errudun-sentimenduak eta auzi moralak, isiltasunek sorturiko kateak, tradizioa berrasmatea...

Larrimin horren erdian, izan badu ihesbiderik, babeslekurik: itzulpen-ofizioarekiko pasioa. Ihesbide horrek arrastoak utzi ditu nobelaren egiturari, etengabeak direlako jolas metalitera-

Horma

ANJEL LERTXUNDI

Erein, 2017



Anjel Lertxundi Esnal idazlea
(Orio, 1948)



rioak, idazketa-prozesuaren inguruko hari-muturrak, edo itzulpen-jardunaren inguruko gogoe-tak. Literatur testuak eta itzulpen-ariketak dira Fidel letrajalearen komunikazio-iturri nagusia, eta komunikazio-bide horretan trebatu bada ere, trakestu egin da bestelako hitz-jardunean.

Nobela existentzialaren arrastoak ugari dira *Horma*-n: narrazioaren arnasan, protagonistaren kezka-motetan eta testuartekotasun literarioetan (besteak beste, Albert Camusen *Arrotza* dakar orriotara). Zentzu horretan, tentsio narratibo urriko nobela da, eta istorioak aurrera egin ahala, Fidelen marmarra errepikakorra egin zait zenbait pasartetan. Gertaeren kate ahul hori orekatzera datoz oihartzun literarioekin eginiko jolasak eta idazketa-ekintzaren inguruko hausnarketak. Literatur tradizioaren piezak aurkezten dizkigu, gaurkoturik, berri-turik, eta puzzlea osatzera gonbidatzen gaitu. Babesleku hori, kultur eredu hori ahanzturak irents ez dezan, memoria literario eta kulturala gal ez dezagun. ■

» DISKOA

Arima sutsuak



Joxi Ubeda Goikoetxea

Bi Bala taldeak bere ohiko etorriarekin, gatz eta piperrarekin, zorrotzasunarekin eta ironiarekin segitzen du. Bertso-rockaren bidetik jarraituz, kantu politak bildu dituzte haien lan berrira, eta urratsez urrats beren ibilbidean aurrera egiten ari dira.

Kantuen bidez kritika eta salaketa egiten jarraitzen dute, hitz jokoen bidez, zirikatuz edo zuzenean: "Interneteko birusak eta txertorik gabeko haurrak, adar jartzeen hipotekak ta hipotekaren adarrak; arazo modernoak, entzefalograma planoak, bizitza garantian ote dudana begiratzera noa" (*Arazo modernoak*); "Inork ezin du galdetu baina demokratik gara" (*Muturrekoei jarriak*), "Galdutako borroak baino okerragoak dira ahaztuak; beldur handirik ez du duintasuna besterik ez daukanak" (*Esku laztuak*).

Melodiak, erritmoak eta soinua ere arretaz eta ongi zaindu dituzte, kantuen moldaketak eta nahasketak. Soinu indartsua, trinkoa eta distiratsua gauzatu dute, xehetasunez ondo jantzia baina soberan egon daitekeen apaingarriarik gabe. Aipagarriak dira gitarrarekin sortu dituzten marrazkiak eta giroak. Izan ere, denbora batean jendaurreko emanaldirik egin gabe egon dira, urtebete inguru, kantuak ontzeko, eta lan berria egiteko hartu duten denbora horrek bere eragina izan du diskoaren soinuan eta emaitza osoan, diskoa osatzeko lanean murgilduta egon izanak bere fruituak eman ditu.

Taldea gero eta ezagunagoa da, eta sasoi-ko dago. Urte gutxitan, jendaurreko emanaldi ugari egin ditu, eta hiru disko kaleratu: *Arazo modernoak* lan berriaz gain, *Gure eroyak*

Arazo modernoak BI BALA

Bonberenea Ekintzak, 2017



*Xabier Etxeberria 'Pitxu' (baxua),
Julen Goikoetxea (bateria),
Aitzol Barandiaran (ahotsa)
eta Iñaki Gurrutxaga (gitarra eta
ahotsa) dira Bi Bala.*

(2015) eta *Wasabi* (2014). Julen Goikoetxea (bateria), Xabier Etxeberria Pitxu (baxua), Iñaki Gurrutxaga (gitarra eta ahotsa) eta Aitzol Barandiaran (ahotsa) taldean elkarrekin jotzen gustura ari direla eta ederki pasatzen dutela bistan da.

Taldeko abeslariak, Aitzol eta Iñaki, bertso-lariak ere badira, eta Julen eta Pitxu musikariekin Bi Balaren soinua sortu, finkatu eta sendotu egin dute, eta disko berriarekin aurrerapauso nabarmena egin dute. Hori guztia bertatik bertara antzeman daiteke lan berria aurkezteko egiten ari diren saioetan. ■



TXAPELKETA NAGUSIKO FINALA

Non: Barakaldon, BEC-en.
Noiz: 2017ko abenduaren 17an.

PUNTUAKETA TAULA

Maialen Lujanbio

(1.197 + 599 buruz buru) 1.756 puntu

Aitor Mendiluze

(1.138 + 542,5 buruz buru) 1.680,5 puntu

Sustrai Colina 1.137,5 puntu

Ametz Arzallus 1.136 puntu

Igor Elortza 1.124 puntu

Aitor Sarriegi 1.107,5 puntu

Beñat Gaztelumendi 1.076,5 puntu

Unai Agirre 1.072,5 puntu



Bazterren aroa, behingoz



Kattalin Miner

@MKattalin

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Oraindik BECekoa liseritu baino, irentsi beharrean nago. Zer nolako finala eman digun zortzikoteak! Hasi eta buka. Bejondeizuela eta eskerrik asko, egun paregabea biziara diguzue!

Beraz bai, pozik nago, oso pozik txapelketak utzitako gazi-gozaok kendu ditudalako igandearekin; Maialen Lujanbiorenarekin. Zeren, lagunok, bidea ederra izan da, baina urdaila ere uzkurtu izan zaigu batzuo sarri. Izan ere, ez dakit badakizuen, baina Bertsolari Txapelketa Nagusian, apenas neurtzen ari garen nork egiten duen hobekien bertsoan (bai, barkatu hala, *braust* botatzea). Beno, hori ere neurtzen omen da, baina beste parametro batez ere ari gara, beste esanahi batzuez. BTNko finalean zehazki gauza asko erabakitzen, kontsentsuatzan eta onartzen ditugu (bertsoan hobekien nork egiten duenez aparte).

Erabakitzen baitugu, zer den kultura. Erabakitzen baitugu zer den euskaraz egitea edo nola egin behar litzatekeen. Erabakitzen eta finkatzen dugu, zein bertso-joera gailenduko den. Zer den bertsoan egitea. Zer den ederra, eta zer edertasun saiakera. Zein doinu den atsegina, eta beraz, zein doinuk biziraungo duen plazan, eta zeinek ez. Zein mundu ikuskera eskertzen den. Zerk eragiten dion Euskal Herriari eta zerk munduari. Zer moduz datozen neskak aurten. Zein diren egungo gai sozialak. Zer den politikoa eta zer ez. Zer den umorea, zeri egin diezaioketun barre eta zeri ez (nahiz barreak ihes egin). Zein puntutarraino onartuko dugun feminismoaren hau, edo non jarriko diogun muga. Zer den fikzioa eta zer norbere galbahetik kantatzea. Nork ordezkatzan gaituen kulturalki. Zein anitzak (ote) garen. Euskara zenbat maite (eta erabiltzen) dugun (eta behar genukeen). Transmisioan ondo gabiltzan edo ez. Epailleak objektibo izan daitezkeen edo ez. Zer ekarri erdigunera eta zer utzi atzean.

Gutxi gorabehera.

Eta igandearekin, herri honek erabaki du, berriro (esango nuke urte batzuk kostata) nork ordezkatzea nahi duen. Euskal kulturaren adierazpide gorenetako batean, nork eraman(go) duen gidaritza, eta ondo ez dakigun arren, nora eraman(go) duen bertsoarritza.

Ez, BECen, lau urtetik behin ez dugu erabakitzen nork egiten duen hobekien bertsoan. Lau urtetik behin, paktu sozial bat egiten dugu (adostasun gehiago edo gutxiagokoa), eta erabakitzen dugu, nork hitz egingo duen gutaz, eta nork hitz egingo digun guri eta zertaz.

Beraz, ulertuko didazue, Lujanbiorenagatik pozteaz gain, zer horrekin nagoela txoratzen. Lujanbiori eskertu egiten diodala, erraietatik, egindakoa, baina entzuleok, euskarazko komunitate honek, transgenero, yonki, puta, migrante, arrazializatu baten ahotsa onetsi du paktu kolektibo baten bidez; eta horrek oso harro sentiarazten nau. Izan ere, jakina da, nik maite, bazterrak maite ditudala ezerean gaineratik. Milesker beraz, Lujanbiori, eta paktu hori berretsi dugun guztioi. Bejondeizuela. ■



Sebastian Lizasok jantzi zion txapela Maialen Lujanbiori. Honek etorkizuneko bertsolari belaunaldiari eskaini zion txapela.

Azken erromesaldia



Kepa Matxain
@kmatxain

Euskaldun Zintzoaren erromesaldiak puska baterako amaitu diren honetan, batek ja ez daki zer egin barruan sentitzen duen hutsunearekin, zerekin ordezkatu txapelketak hiru hilabetez betetako asti guztia, zerekin entretenitu, ze iraultzatan izena eman. Ze batzuetan herri honetan denak dirudi estrategikoki agendan paratua. Batzuetan batek nabari du ezkutuko esku bat, zer, noiz eta nola ospatu diktatzen duena, eta otuzten zaio agian ebentogintza izan dela euskal zeraren jokaldirik burutsuena, beste guztiari eusten dion pilare zentrala. Indarge eta erkin sentitzen zarelarik, zast, hor sartzen dizute bozkario txute neurtu bat biharamunean babak eltzeratzen segitzeko adorea bil dezazun. Ezer izatekotan, tenplu bat baita BEC, katarsi kolektiborako adorazio gune bat, bertsolariak Errege Magoak nola aretoan sartzen direnetik txapelduna-

ren agurrera arte. Txapelketak bere-bere duen parafernaliak goia jotzen du, oholtzako jarduna ezinbestean baldintzatuz. Panorama horretan, ez da lantegi erraza izaten lastoa eta alea bereiztea, denak baitirudi mikrotik botatzen dena goragotzeko prestatua.

Gazi-gozo joan da goizeko saioa, hala eta ere. Une indartsuren bat edo beste bai, baina lehertu ezinik, eta entzuleen ahotan sentsazio bat: Lujanbio dabilela nabarmen goitik, eta haren segidan tropel berdindua: Mendiluze, Colina, Arzallus, Sarriegi eta Elortza. Baina gidoia ez da betetzen ari, artean ez baita jazo finalari kosta ala kosta exijitzen zaionik: barre lodi eginaraziko duen ofzioreen bat, eskuak ubeltzerainoko bakarkako bat. Lan onak bai, izan dira, baina langaz gain-gaundikorik apenas –Lujanbioaren kartzelakoa, izatekotan–.

Besterik izan da arratsaldean. Puntukako ariketan berotu da giroa, batez ere Elortzaren eta Colinaren artekoan (jatetxe batean zita egin duen bikotea, ingurura begiratu eta dena ezagunez josita), eta baita Arzallusek eta Agirrek

egindakoan ere (telebistako makillatzaileak, beren eskuetatik igaro behar dutenen zain). Seiko motzean, aldiz, saioak behera egin duela iruditu zait, gaiengatik gehiago bertsolarien jardunagatik baino. Gai sozialak nagusitu dira, bertsolariak gizarteari buruzko onkeriazko gogoetak egitera bultzatzen zituztenak, moralki hautu zuzena hartuz amaitzeko. Bakarkakoan, azkenik, ale onak izan dira, oro har. Buruz burukora nor igaroko, hor izan da eguneko tentsio unerik handiena, Lujanbio denek seguru jo arren, bigarren posturako kinieletan izen dantza pixka bat bai baita. Behin bigarrena Mendiluze dela jakinik –Colinarekiko puntu erdira, Arzallusekiko bi puntura–, inor gutxi harritu du amaierako emaitzak, Mendiluze sendo baten aurrean, gero eta la-saiago, hazten jarraitu baitu Lujanbiok, azken kartzelakoan, prostituta baten ahotik kantatuz, goia jo arte.

Bada saio osoan zehar burutik kendu ezin izan dudana inpresio bat: nola BECen gorpuzten den, beste inon ez bezala, euskal komunitatearen balioen kodea. Ez da beste espaziorik, euskaraz, halako masa elkartzen duenik, unean-uneke gai batzuen bueltan, giro solemne horretan. Oholtzako gai guztietan, Agirrek Puigdemonten ahotik kantatu duenean entzule batzuek botatako independentziaren aldeko oihuetan, esteladetan, ikurrinetan, txaloetan, puntuetan... toki eta une horretan inon ez bezala kontsentsuatzen dira euskal komunitatearen zutabe moralak. Eta komunitate orok autoafirmazio uneak behar dituen arren, faltan sumatu ditut arrakala gehixeago kontsentsu horretan, norbere burua aho batez berrestea baino interesgarriagoa baita norbere ziurtasunak zalantzan jartzea, tarteka bederen. ■

Natza Farré. Umorea salbazio



Kazetaria, gidoilaria eta idazlea da Natza Farré (Bartzelona, 1972). 2009an Rac1 irrati katalana *La competència* umore irratsaioaz erditu zenetik, gidoilarietako bat da. Iaz argitaratu zuen bere bigarren liburua, *Mikrouhin labeetarako feminismo ikastaroa*, Katalunian salduenetako bat.

“Susmo txarra hartzen diot abenduaren 21ari”



Saioa Baleztena

@SaioB

ARGAZKIAK: JORDI BORRÁS

Ezkor baina iraunkor

“Feminista eta independentista naiz, nahiz eta borroka bakarra aukeratu beharko banu, feminismoari eutsiko niokeen, zalantzarik gabe. Bizitzaz, munduaz eta gizadiaz, orokorrean, ikuspegi apokaliptikoa dut eta, betidanik, ezkortasunetik bizirik ateratzeko bidea izan da niretzat umorea. Testuigururik beltzenetan ere, barrutik ateratzen zaizun ezaugarria da umorea. Beraz, ogibide guztietan bezala teknikak ikasi daitezkeen arren, esango nuke umorea egiten dugunon gaitasuna jaiotzetikoa dela”.

Katalunia salbuespen egoeran murgilduta dago. Nola bizi duzu?

Kazetaria naizen aldetik, interes handiarekin bizi dut Kataluniako testuigurua, baina, herritar gisa, ezinegenez lepo. Pentsa ni ez naizela orain ugaritu diren independentista iritsi berri horietako bat. Ni betiko independentisten labekadakoa naiz. Baina institutuko garaian lau katu ginela kontuan hartuta, orain nagusitu den mobilizazioa ikustea kitzikagarria da. Zoritzarrez Espainiako Gobernuaren gupidagabetasunak kezkatuta gaitu.

Nola aurreikusten dituzu Mariano Rajoyk deitu dituen bozak?

Oraindik ere azaldu behar didate zer gertatzen ari den, nik ez baitut ulertzen. Inposaketak beti haserrearazi nau. Norbait azaldu beharko dit noizbait, 2015eko irailaren 27an eta pasa den urriaren 1ean bozkatu nuenak zergatik ez duen ezertarako balio izan. Gure bozak orain arte ez dira errespetatu, eta nork bermatzen du hirugarren hitzordu honetako emaitzak errespetatuko direnik? Susmo txarra hartzen diot abenduaren 21ari.

Zer gertatuko da biharamunean?

Nazioarteko bitartekotasunik ez bada, orain arte gertatutakoa berretsiko da: Rajoyren gobernuak Espainiaren batasunaz hitz egingo du bakarrik, eta hortik haratago doan guztiari ateak itxi-ko dizkiote. Beraz, errepresioa mugarik gabe luzatuko da.

Kontuak kontu, umorearen bidetik jarraitzen duzu Rac1-en. Zaila da une beltzetan umorea egitea?

Zaila da, baina ez hainbeste gertatzen denegatik, baizik eta jendeak egoera bizi duen moduagatik. Bederatzi urte daramatzagu saio hau egiten, eta noski, pertsonalki bizitzako kapitulu gogorrenetan ere buru-belarri aritu naiz: goizean goiz saioa egiten nuen eta arratsaldean hiltzear zen lagun batekin nintzen, adibidez. Hori hala da eta ez dago besterik. Orain gertatzen dena da sentiberatasuna zabalduago dagoela. Entzule gehienek eskertzen dute umorea euren etxeetara eramatea. Baina tarteka kritikaren bat jaso dugu. Adibidez, gobernu erdia atxilotu eta biharamunean horren izkirimiriak egiteagatik.



Umorea zure bizitzako hainbat alorretan agertzen da. Baita iaz publikatu zenuen *Mikrouhin labeetarako feminismo ikastaroa* liburuan ere. Feminismoaren osasuna hobetu al da?

Kontzientzia berriak esnarazten ari gara eta, hein batean, independentismoarekin gertatu denaren antzeko zerbait pasa dela esango nuke, puztu da azken urteetan. Tira, liburua katalanez idatzi nuen, diskretua da, eta urte bakarrean sei edizio egin ditugu. Matxismoak berezkoa zuen isiltasuna hautsi dugu eta borrokarik garrantzitsuenen lehen urratsa hori da.

Uste al duzu feminismoa matxismoa baino okerrago ikusita dagoela gure gizartean?

Zalantzarik gabe. Hori da gure gizarteko paradoxarik handienetako bat. Estereotipoek mugitzen dute gizartea, eta feministak itsusi eta erotzat hartzen dira oraindik. Zorionez errealitatea estereotipoetatik haratago doa. Baina etsigarria da mendetan iraun duen gaitz kroniko hau XXI. mendean salatzen ibili behar izatea.

“Entzule gehienek eskertzen dute umorea euren etxeetara eramatea, baina Katalunian sentiberatasuna zabalduago dago orain eta tarteka kritikaren bat jaso dugu. Adibidez, gobernu erdia atxilotu eta biharamunean horren izkirimiriak egiteagatik”.

Kazetaria zara. Uste duzu komunikabideok indartzen ditugula aipatzen dituzun estereotipo horiek?

Noski. Zorionez telebistarik gabe bizi naiz. Baina lehengo egunean ikusi egin nuen, eta konturatu nintzen garbiketa produktuak oraindik ere emakumeekin lotzen dituztela bakarrik. Tira, estereotipoen kontrako borroka neka-garria da.

Politikarien artean parekotasunetik gertuago gauden arren, komunikabideetan gehiago dira beti gizonezkoak. Zergatik?

Ez dago aldagai bakarria. Telebistetan, adibidez, gizonezkoak meharrak, potoloak, ederrak zein itsusiak izan daitezke. Emakumezkoak ez. Zoragarriak izan behar dute, gehienetan. Hori berez bada muga bat. Baina ez hori bakarrik; niri pasa izan zait, saioaren batera joateko deitu didatela eta, hamaika arrazoi tarteko, ez zaidala bateragarria izan.

Gaezan bada, adibidez, emakume askok ezetz esan behar izaten dute seme-alabak izanik afaltzeko ordua delako. Besteak beste, etxeko lanak emakumeok egiten ditugulako gehiago oraindik. Tira, gizonezkoek, oraindik ere, malgutasun handiagoa izaten dute.

Kataluniako hainbat telebista katetako mahai-inguruetan aritzen zinen lehenago. Zergatik utzi zenuen?

Ez nintzelako eroso sentitzen. Telebista zein irrati mahai-inguruen formatua birplanteatu beharko litzateke, ez baitu argudioak behar bezala garatzen uzten, eta beraz, herrenka ibiltzen zara behin eta berriz azaldu nahi duzuna ezin izan duzulako bukatu. Larrituta joaten nintzen lotara, egiten nuenarekin gustura ez negoziariko. Zutabeak idatzita hobeki sentitzen hasi nintzen eta horretan nabiltzen. Agian asoziala naizenez idatziz hobeto nago –barrez–. ■



Internet eta telebista bitartez ere gozatu zuten milaka bertsozalek BECeko magia.

BECeko bertso-finala “diabetikoentzat kaltegarria” izan daitekeela diote hamar medikutatik bederatzik

Bertsolaritzaren eragina osasun publikoan txostena argitaratu du mediku-talde batek eta kezka agertu du BECeko finalean izan zirenek jaso zuten azukre-gaindosiarekin: “Ohiko sakarosa maila halako hamar antzeman dugu bertsolariari, euskarari eta herri honi buruzko bertso eta iruzkinetan. Diabetikoentzat oso arriskutsua da hori”, azaldu dute. Gainera, ohartarazi dute finalean ez zutela Jon Maiak, Jon Martinek eta Alaia

Martinek kantatu “bestela honezkeru azukre-intoxikazioaz hizketan ariko ginen”, medikuen iritziz.

Bestalde, Bertsozale Elkarteak iragarri du Euskal Herriko Gozozaleen Elkargoa izango dela hurrengo txapelketako esponsor nagusia. Bertsolariek saio bakoitzean *Ezkontzen zaigula pastelero* doinuarekin kantatu behar dute, sinatu duten hitzarmenaren arabera.

SAREAN ARRANTZATUA

Euskaltzaindiaren logo berria



Katolikoek Jaungoikoak dio, “itzali argia, laguntxoak”



Gertakari harrigarria! Podemosen 38 ordu daramate barne liskarrik gabe

Munduko politologo onenek kezka agertu dute esplikatzen ezin duten fenomeno bitxi bat dela eta: Podemosen 38 ordu darama kideen artean ostiaka aritu gabe. Alderdi morean bertan ezinegona sortu du egoerak: “Etengabeko ika-mikak gure ezaugarri behinena dira, barne eztabaida sana baita kastako alderdi lasai horiengandik bereizten gaituen sor-marka, eta seguru baretasun susmagarri honek ez dakarrela ezer onik”, adierazi du Pablo Iglesiasen alderdiko Barne Ika-Miketarako arduradun P. Iglesiasek.

Haatik, berehala agertu dira Podemosen barruan aurreko tesiarekin bat

ez datozenak. “Hainbeste desadostasun... uf, ez dakit ba, beti elkarri moka ibiltzeak irudi txarra ematen du, seguru kastako alderdi lasai horietan gutaz trufaka ari direla”, alderdiko Irudi On Batzordeko idazkari Pablo I.-ren berbetan.

Pablo Iglesias alderdiko buruak ez du gaiari buruzko adierazpenik egin nahi izan gaiaz. “Oso lanpetuta dabil Espainiaren batasuna segurtatzeko laguntzen eta ez dauka txorradetarako astirik”, zuritu du bere nagusiaren isiltasuna Podemoseko idazkari nagusiaren albokoak, ezetz izena igarri.



Podemosen Irudi On Batzordeko idazkari berria Pablo I. T.

Izotz Pistak Usurbilen!!!



Pista
de Hielo!

Askatasun Plazan
abenduak 22tik
urtarrilaren 7ra



ORDUTEGIA:

goizez: 11:00- 13:00

arratsaldez: 17:00-20:00

SARRERAK:
Hurbilagoko
establezimenduetan:

1,50€

izotz pistan bertan: 3€



Usurbilgo Udala

hurbilag

Usurbilgo Merkataritza eta Ostalaritza Elkarteak

Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAIA
DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO



SAIZAR

Sagardoa · Sidra Natural

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com